



Haurtzaro Ikastola

bizitzarako hezkuntza

BATZAR NAGUSIA

2024ko abenduaren 11





AURKIBIDEA

0. Lehendakariaren agurra	3
1. Bidezkoa bada, aurreko batzarreko aktaren onespena	4
2. Haurtzaro Ikastola Kooperatiba	7
2.1. Gobernu eta Funtzionamendu egitura. Batzordeetako ordezkariak	7
2.2. Gobernu organoen urteko kudeaketa: egindakoa eta egitekoa	11
2.3. Urteko kontuak eta aurrekontuak	13
2.4. Pertsona eredia	24
2.5. Errealitate bihurtu den jolaslekua	26
2.6. Udalarekin harremanak	28
3. Hezkuntza arloa	29
3.1. 0-18 eskaintza: datuak eta egitasmoa	30
3.2. Euskara eta eleaniztasuna	47
3.3. Eskolako Agenda 2030 ikastolan	52
3.4. Eskolak Kanpoko Ekintzak	54
3.5. Zerbitzuak	56
3.6. Bizikidetza ikastolan	57

0. LEHENDAKARIAREN AGURRA

Bazkide agurgarria:

Ikastolan gizartearen behar eta egoera berrietara egokitu gara.

Beti ditu ateak irekiak bizitzako gorabeherak hona ekarri dituzten familiak hartzeko, bazterketa arriskuan daudenei aukera berdintasuna eskaintzeko. Oro har, sortzen diren egoera berrietara moldatzeko eta egokitzeko gaitasuna aski frogatua geratu da.

Jangelako menuak aldatu eta zabaldu ditugu, pedagogia arloan etengabe berritzen goaz, paretak bota ditugu... Adibide garbia, guk, komunitate osoak parte hartutako lanketaren ondorioz kanpo eremuan egin berri dugun aldaketa.

Baina administrazioak familiei dituzten beharrei uko eginarazi eta aukeratzeko eskubidea mozten die.

Zergatik?

Ez al da ba eskubidea zein elkarte eredutan parte hartu aukeratzea?

Ezin al da aukeratu norberaren filosofiarekin bat datorren ikastetxea?

Ezin al dute familiek hobekien datorkien ordutegia eskaintzen dien ikastetxearen hautua egin?

Zergatik egin behar diote familiek uko hobekien datorkien zerbitzuei?

Familien eskubideen urraketak onartzen ez ditugunez eta ikastola herritik sortu zelako eta herriarentzat ari garelako, borroka honetan jarraituko dugu.

Lorena Zalakain Lopez

1. BIDEZKOA BADA, AURREKO BATZARREKO AKTAREN ONESPENA

HAURTZARO IKASTOLAKO OHIKO BATZAR NAGUSIA 23/24 2023-12-13ko AKTA

Bildutakoak eta ordezkatuak: 102 bazkide: 72 lan bazkide, 28 bazkide onuradun, bazkide ez aktiborik ez eta 2 bazkide laguntzaile. Ikastolako lehendakari ohiak, udal ordezkari eta gonbidatuak beste 6 guztira.

Lorena Zalakain ikastolako lehendakaria; Kristina Boan, ikastolako zuzendaria; Agustin Vital, ikastolako administraria eta Garazi Urdampilleta udal ordezkaria izan dira mahaiburuan.

GAI ZERRENDA:

0.- Lehendakariaren agurra	Lorena Zalakain	17:30
1.- Bidezkoa bada, aurreko batzarraren aktaren onespena Aurtengo aktaren onarpenerako bi bazkideen izendatzea	Lorena Zalakain	17:34
2.- Kontseilu Errektoreko eta Hezkuntza Batzordeko ordezkari berrien izendapena (bozkatu beharrekoa)	Lorena Zalakain	17:35
3.- 2022-2023 ikasturteko gestio txostena eta bidezkoa bada 2023-2024 ikasturteko gestio planaren onarpena	Agustin Vital	17:36
4. 2022-2023 ikasturteko kontuak eta bidezkoa bada, 2023-2024 ikasturteko aurrekontuen onarpena	Agustin Vital	17:40
5. Udalarekin harremanak	Garazi Urdampilleta	17:45
BOZKETA		
6. Hezkuntza legea	Kristina Boan	17:50
7. Hezkuntza kudeaketa	Kristina Boan	17:55
8. Pertsona eredua	Maite Gomez	18:00
9. Amesturiko jolaslekua	Aritz Bereziartua	18:20
10. IKT ituna	Zigor Goikoetxea	18:30
11. Ikasle ohiak	Udane Guridi/Eneko San Jose	18:37
12. Galderak eta erantzunak	Lorena Zalakain	18:50

Batzarrari 17:30ean eman zaio hasiera.

Hauak izan dira hartutako erabakiak:

1.- Aurtengo akta onartzeko bi bazkide hauek izendatu dira: Zigor Goicoechea eta Nerea Vallejo

2.- Kontseilu errektorerako kide berriak proposatu eta hautatu dira:

Lehendakaria	Lorena Zalakain Lopez
Lehendakariordea	Iñaki Arbelaitz
Idazkaria	Tamara Yaoska Sastre Castillo
Bokalak	Ariane Retegi Uria
Bokalak	Edith Agirre Agirrezabalaga
Bokalak	Xuxuna Juanes
Bokalak	Lourdes Lopez
Bokalak	Aritz Bereziartua Arruabarrena
Bokalak	Aintzane Arrastua Lekuona
Bokalak	Iñaki Arbelaitz Aranburu
Bokalak - Ez aktiboa	Ez da ordezkartzarik
Bokalak - Laguntzailea	Ez da ordezkartzarik

3.- 2022-2023 ikasturteko gestio txostena eta bidezkoa bada 2023-2024 ikasturteko gestio planaren onarpena. Ikastolako administrariak hitza hartu du eta xehetasun ekonomikoaren inguruko informazioa eman du.

4. 2022-2023 ikasturteko kontuak eta bidezkoa bada, 2023-2024 ikasturteko aurrekontuen onarpena. Ikastolako administrariak hitza hartu du eta Kontseilu Errektoreak bideragarritasun-plana eguneratzeko jarraitu dituen irizpideen inguruko informazioa adierazi du.

5. Udalarekin Harremanak. Oiartzungo udal ordezkariak, Garazi Urdampilleta, hartu du hitza eta, Oiartzungo udalaren ikuspuntutik, ikastola eta udalaren arteko harremanaz aritu da. 2024ari begira bi proiektu marxan jarri nahi dira haur eta nerabeen parte hartze bideak eraikitzeko. Haurtzaro Ikastola kultur eragileak denez, esparru honetan ere elkarlana bideratuko da. Herrigintzan eta herriari egiten dion ekarpenagatik aitortza egin zaio udaletik Haurtzaro Ikastolari, baita bertako langileei ere egunerokotasunean erakusten duten inplikazioarengatik.

Bozketarako tartea eman da.

6. Hezkuntza legea. Haurtzaro Ikastolako zuzendariak hartu du hitza. Hezkuntza legeak dituen ahuleziez aritu da.

7. Hezkuntza kudeaketa. Haurtzaro Ikastolako zuzendariak hartu du hitza, aurrean ere legeak eskatuta, berrikuntzak egongo direla aipatu du baina gure betiko balioek jarraituko dutela oinarrian. Euskal curriculumaren garapenean konpententzietan oinarritutako hezkuntza-eredua dugula gogoratu da eta berrikuntza pedagogikoko Ikastolen Elkarteak argitaratutako Marko Pedagogiko berriaren eskutik etorriko direla.

8. Pertsona eredia. Maite Gomez irakasleak hitza hartu du. Irteera profila gure hezkuntza proiektuan jasota daukagula adierazi du eta ikastolan azpimarratzen diren hiru behar psikologikoen eta bizikidetzako printzioen inguruan lanketa handia egin dela adierazi du. Oinarritzko Hezkuntza bukatzen dutenean, ikasleak zer nolako pertsonak izatea nahi dugu? galderari erantzuten dio pertsona eredia kontzeptuak.

9. Amesturiko jolaslekua. Aritz Bereziartuak hitza hartu du eta kanpo espazioa eraldatzeko prozesu parte hartzailearen inguruko xehetasunak adierazi ditu. Duela 5 urte abiarazi zen proiektua da. Ikasleei eskaini nahi zaien espazioa balio hezitzaileetan oinarritutakoa izatea nahi da.

10. IKT ituna, Zigor Goikoetxeak eta Judith Larretak hitza hartu dute. Guraso ituna proiektuaren inguruan informazioa adierazi dute, ikastolako eremuan eskaini den proiektua da, baina herri mailan sozializatzeke urratsak ematen hasi dira. 22-23 ikasturtean martxan jarri zen eta ikasurte honetan ere. Borondatez parte hartu daiteke, iaz 143 familiek parte hartu zuten eta aurten 169, azken hauetatik 157 familiek konpromisoa hartu dute beren seme alabei mugikorra aurrerago emateko.

11. Ikasle ohiak. Udane Guridi eta Eneko San Jose ikasle ohiak hitza hartu dute. Zer da zuentzako Haurtzaro Ikastola? Galderari erantzutea zaila egiten zaie, galdera oso potoloa delako, baina hitzekin erantzun beharko balute honako hauek erabiliko lituzketela adierazi dute: zaintza, babesa, zoirotasuna, bigarren etxea eta laguntasuna. Irakasleei eskerrak eman dizkiete beraiegandik jasotakoarengatik. Belaunaldiz belaunaldi ikasleek ikastolarekiko duten atxikimendua eta sentimendua oso positiboa dela adierazi dute.

Batzarrean egindako bozketak eta emaitzak hurrengoak izan dira: 101 bozka

BOZKA GAIA	BAIEZKOA	EZEZKOA	BOTU ZURIA	BOTU NULOA
Kontseilu Errektoreko ordezkari berrien izendapena	101	0	0	0
2022-23 ekitaldiko kontuen onarpena	100	0	1	0
2023-24ko aurrekontuen onarpena	100	0	1	0

Bozka hauen bidez Kontseilu Errektoreak gai hauetan eginiko proposamenak onartuak izan dira. Galde erantzunen ondoren, 18:50an bukatu da ohiko batzar nagusia.

LAN BAZKIDEAREN ORDEZKARIA

Goikoetxea Retegui, Zigor
NAN 44157093Z



BAZKIDE ONURADUNAREN ORDEZKARIA


Nerea Vallejo Etxebeste
NAN 44563256C



2. HAURTZARO IKASTOLA KOOPERATIBA

2.1. Gobernu eta Funtzionamendu egitura. Batzordeetako ordezkariak

Haurtzaro Ikastola Kooperatibako antolaketa organikoa ondorengoa da:





2.1.1. Batzar Nagusia

Ikastolako bazkide onuradunek (gurasoek), lan bazkideek (langileek), bazkide ez aktiboek eta bazkide laguntzaileek osatzen dute Batzar Nagusia.

Ohiko Batzar Nagusia urtean behin egiten da, estatutuek zehazten duten epearen barruan.

2.1.2. Kontseilu Errektorea

Talde honen helburu nagusia Haurtzaro Ikastola Kooperatibaren kudeaketa orokorra aurrera ateratzea da eta, horretarako, hilean behin biltzen da, gutxienez: ostegunetan 17:00etatik 20:00etara.

Kontseilu Errektorea, ikasturte honetan, hamahiru lagunez osatutako taldea da: bost bazkide onuradun, bost lan bazkide, udal ordezkaria, ikastolako zuzendaria eta administraria. Kontseilu Errektoreko partaide berriak ondorengoak dira:

Lan bazkideen ordezkariak:





Bat da ordezkari berria: Itziar Muguruza.

Bazkide onuradunen ordezkariak:






Bazkide berria: Igor Elortza Saez de Egilaz.

Beraz, 2024-2025 ikasturteko Kontseilu Errektorea ondorengo ordezkariak osatzen dute:

Bazkide Onuradunak

				
Lorena Zalakain (Lehendakaria)	Igor Elortza Saez de Egilaz	Araitz Rodriguez	Iñaki Arbelaiz	Edith Agirre

Lan Bazkideak

				
Tamara Sastre (idazkaria)	Xuxuna Juanes	Erramun Sagarzazu	Itziar Muguruza	Lurdes Lopez

		
Udal ordezkaria	Administraria	Zuzendaria
Aiako Harria Gaztelumendi	Agustin Vital	Kristina Boan

2.1.3. Hezkuntza Batzordea





Talde honen helburu nagusia ikastolako hezkuntza eremuaren kudeaketa orokorra aurrera ateratzea da eta, horretarako, hilabetean behin biltzen da: astelehenetan 17:00etatik 19:00etara. Taldea ondorengo lagunek osatzen dute: hiru bazkide onuradunek, hiru lan-bazkidek, bi ikaslek eta ikastolako lehendakariak, 6 koordinatzaileek, hiru ikasketaburuek eta zuzendariak.

Ikasleen bi ordezkari proposatu dira DBH3tik eta DBH4tik, txandaka.

2024-25 ikasturteko Hezkuntza Batzordea ondorengo ordezkariak osatuko dute:










Bazkide Onuradunak

			
Lorena Zalakain (Lehendakaria)	Udane Perez (HH)	Joseba Karrikiri (DBH)	Ane Zubizarreta (LH)

Koordinatzaileak eta lan bazkideak

Ikasleak

						
Iosune Cousillas	Beñat Mendizabal	Garazi Aramendi	Joxan Arruabarrena	Mainer Lekuona	Patxi Lizarraga	Iksaleen ordezkariak

Zuzendaria

Ikasketaburuak

			
Kristina Boan	Ander Mariezkurrena	Idurre Arrastua	Maialen Bengoetxea

2.1.4. Bizikidetza Behatokia

Bizikidetza Behatokia ikastolan elkarbizitza kudeatzeko organoa da. Urteko helburuak zehazterakoan, ikastolako UEP Urteko Elkarbizitza Planean oinarritzen da. Helburuak dira:

- Adostasunezko markoan (errespetu, elkarrizketa, negoziazio...) berdinen arteko harremanak sustatuko ditu.
- Kide guztiak baloratuak, entzunak eta partaide direla sentitzea bultzatuko du.
- Erabakiak hartzeko ardura izango du.
- Ikastetxeko bizitzaren parte aktibo izango da.

Bizikidetza Behatokia osatzen dute: Hezkuntza Batzordeko ordezkariak, aholkulariak, orientatzaileak, jantokiko arduradunak, eskolaz kanpoko ekintzen arduradunak eta zenbait gurasok.

2.2. Urteko kudeaketa: egindakoa eta egitekoak

2.2.1. Kontseilu Errektorea

2023-2024 ikasturtean 11 bilera egin zituen. Atalez atal hauek dira landu zituen gaiak:

2.2.1.1. Ohiko funtzionamenduko gaiak aztertu eta erabaki zituen

- Urteko lanen plangintza
- Obra Batzordearen jarraipena
- Beka Batzordea
- Hezkuntza Batzordea
- Udal Ikastola Partzuergoko gaiak
- EHiko gaiak, informazioa
- Urtekarirako artikulak
- Ikastola Eguna
- Kooperatiben erregistroa, kontuen eta karguen erregistroa

2.2.1.2. Ondoren adierazten diren urteko gaiak landu zituen

Gai orokorrak

- Plan Estrategikoa
- Obra Batzordeko informazioa. 2024ko udako lanak



- Batzar Nagusia
- Txosna Batzordea
- Matrikulazio kanpaina
- Xanistebanetako urtekaria
- Udal festa komisioren berri
- Hezkuntza Proiektua
- VII. Batzarra
- Kirol Elkarteko estatutuen aldaketa
- Elizaldetik eskaera
- ABenduaren 24koaren balorazioa

Arlo ekonomikoa

- Aurrekontuak, kuotak, jarraipena
- Haurtzaro Ikastolako aurrekontuaren jarraipena
- Oiantzoko kontuak. Defizita
- Altxortegiaren egoera
- 2023-24 ikasturteko kuotak
- Eskolaz Kanpoko Ekintzetako aurrekontua. Kuotak
- Haurtzaro Ttikiko igogailua

Arlo laborala

- Langileen plangintza, lan egutegia
- Lan hitzarmena
- Lan Batzordeko informazioa
- Langileen lan harremanaren bukaera eta omenaldiak
- Aurretiazko erretiro aukera duten langileen egoeraren errepasoa eta eskaerak
- Eszedentzien eta jardunaldiaren murrizketen eskaerak
- Ordezkoen lan poltsa
- 2024ko Lan Hitzarmenaren egoera
- Hurrengo ikasturteko kontratuak
- Erretiro partzialak
- Erreforma laborala
- Hurrengo ikasturteko kontratuak
- Sexu jazarpen protokoloa
- Langile baten 25. urteurreneko irizpideak
- Aurre-erretirodunen gain-kotizazioaren dekretua

Beste gaiak

- Eskaerak
- Irratiaren 25. urteurrena
- Coca Cola
- Olentzeroaren diagnostiko proposamena

2.3. 2023-2024 ikasturteko kontuak eta 2024-2025eko aurrekontuak

2.3.0. 2024ko udako inbertsioak. Jolas eremuaren berriztapena

2022-23 ikasturtean jolas eremua eraldatzeko hasierako prozesu parte-hartzailea hasi zen, hurrengo ikasturteko udaran lanak ezin izan ziren exekutatu eta 2024ko udaran bukatu dira lanak. Eraitza begi bistan dago. Ikastolako jolas eremuak gaurkotu eta berriitu dira eta azpiko instalazioak ere saneatu dira.

Lan horien finantzaziorako 300.000 euroko maileguak eskatu dira eta falta den beste zatirako barruko inbertsio funtsa erabili da. Epe ertain batean, ikastolak bere gain dituen mailegu kopurua oso apala izango da eta Hezkuntza Saitetik jasotzen diren inbertsio diru-laguntza txikiekin parekatuko dira. Hona hemen egindako inbertsioan gastatutakoa.

2024-UDA KO LANAK. ORDAINKETEN KONTROLA

SASOI ENPRESA	325.182,20€
SASOI KANALIZAZIOAK	35.140,58€
JOLASAK. KIMUBAT	173.209,50€
TOLDOAK. ARK TEXTIL	70.025,12€
OBRA BAIMENA	5.892,64€
OBRAKO GASTU OROKORRAK	49.333,70€
JOLAS EREMUAREN INBERTSIOA GUZTIRA	658.783,74€

2.3.1. 2023-24ko egora ekonomikoa eta 2024-25eko aurrekontua


2.3.1.1. Kuota Osagarriaren desglosea

Haurtzaro Ikastolako diru-sarrerak hiru iturritatik datoz: Hezkuntza Saileko diru-laguntzak, Oiartzungo Udala eta familien kuoten ekarpenak. Ikasturte honetan Hezkuntza Saila, jarrera oso oldarkorra erabiliz, ikastoletan ordaintzen diren kuota osagarriak murriztu eta desagertu beharko lirakekeela aipatzen ari da. Hala ere, ikastolako kostu guztiak ordaintzeko ez dute bestelako diru-laguntzarik paratzen. Hona hemen 2023-24an zertan erabili zen:

2023-24 KUOTA OSAGARRIAREN DESGLOSEA

FINANTZA GASTUAK	86.467,06€
MATERIALA, LIBURUAK, MATERIAL INFORMATIKOA	40.884,28€
FUNTZIONAMENDU OROKORRA	3.542,39€
GARRAIO ZERBITZUA	40.063,38€
JANTOKI ETA ZAINZA ZERBITZUA	12.338,61€
ERAIKUNTZAREN MANTENUA	35.026,72€
GASTU LABORALAK	140.681,64€
KUOTA OSAGARRIEN ZENBATEKOA, GUZTIRA	359.004,08€

KUOTA OSAGARRIEN ERABILPENA



- **Finantza gastuak.** Haurtzaro Ikastolako eraikuntza osoa, azken 57 ikasurteetan Oiartzungo ikastolan bazkide izandako familia guztiei esker ordaindu da. Izan ere, eraikuntzako inbertsioak maileguen bidez finantzatu dira eta dagozkien kuotak txukun-txukun ordaindu. Hezkuntza Sailak, HEZKOOP diru-laguntzaren bidez, egindako inbertsioen %35 inguru finantzatu ditu. Beste guztia gure gain geratu izan da. 2023-24 ikasturtean 86.467€ izan dira.

- **Materiala, liburuak eta material informatikoa.** Haurtzaro Ikastolako ikasleen material pedagogikoa familiek ordaintzen dute. LH5etik aurrera erabiltzen duten *Chromebook* gailua eta material digitalen baliabideen zati bat ere kuota osagarrietatik ordaintzen da.

Hezkuntza Sailak ez du IKT mantenu eta dinamizatzailerik figurarik subentzionatzen. Gastu laboral horiek guztiak Ikastolaren gain geratzen dira. Bestalde, gailu informatikoen ordainketaren zati handi bat kuota osagarrietatik finantzatzen da. 2023-24 ikasturtean 40.884 € izan dira.

- **Funtzionamendu orokorra.** Haurtzaro Ikastolako funtzionamendu orokorraren barruan beste gastu pedagogikoak, kanpoko enpresek egindako aholkularitza gastuak, administrazio gastu orokorrak, aseguruak, Ikastolen Elkarte, Elkartasun Kutxa, Oiartzoko batxilergo gastuak, Guraso Eskolak, Eskolaz Kanpoko Ekintzetako defizita, Beka Batzordea, eta abar... Gure pertsona igo ahal izateko beharrezkoak diren gastuak dira. Hezkuntza Sailak kontzertuen bidez modulu aldakor bat ordaintzen du. Epe ertain batean gela kopurua jaisten bada, kontzertuetako funtzionamendu ratio honengatik jasoko den diru-laguntza ere behera joango da. 2023-24 ikasturtean 3.542€ izan dira.

- **Garraio zerbitzua.** Haurtzaro Ikastolako garraio zerbitzua erabiltzaileen eta ikastolako familia guztien artean finantzatzen da. Ikastolako sorreratik garraio zerbitzuaren defizitaren zati garrantzitsu bat bazkide guztien artean ordaindu da. Izan ere, Oiartzun bailara izanik, kuoten berdintasunaren alde ikastolak egiten duen ekarpena da. Hezkuntza Sailak ez du diru-laguntzarik ematen. 2023-24 ikasturtean 40.063€ izan da garraio defizita.

- **Jantoki eta zaintza zerbitzua.** Haurtzaro Ikastolak jantoki eta zaintza zerbitzuetako defizitak bere gain hartzen ditu. Nahiz eta, jantokia zerbitzua kuoten bidez finantzatua izan, zaintza zerbitzuak eragiten duen defizita kuota osagarrietatik finantzatzen da. Hezkuntza Sailak ez du diru-laguntzarik ematen. 2023-24 ikasturtean 12.338€ izan da jantoki eta zaintza defizita.

- **Eraikuntzaren mantenua.** Oiartzungo Udalak ikastolaren hastapenetatik eraikuntza mantenu gastuak bideratzeko diru-laguntza eman dio Haurtzaro Ikastolari. Bi entitateen artean sinatua dugun hitzarmenari esker, garbiketa gastuak, mantenu gastu txikiak, atezaintza gastuak eta mantenu kontratuen gastuak Udalak bere gain hartzen ditu. Konkretuki, 2024. urtean 442.527 euro izan dira hitzarmenaren diru-laguntza. Haurtzaro Ikastolak eskertzen du urte luze hauetan indarrean den hitzarmena. Hezkuntza Sailak ez du mantenu diru-laguntzarik ematen. 2023-24 ikasturtean 35.026€ izan da eraikuntza mantenu gastuen defizita.



- **Gastu laboralak.** Hezkuntza Sailak ordaintzen dituen ratioak eta finantzatzen ez dituen atalak hauexek dira:
- Gelen kontzertua eta bere garapena. Matrikulazio inguruko erabakien bidez eta kontzertuak erabiliz, Hezkuntza Sailak Haurtzaro Ikastola ikasturteko 3 lineetatik 2 lineetara pasatzea erabaki du. Horren ondorioz, gela kopuruaren araberako diru-laguntza sistema honen bidez gure kostu finkoak finantzatzeko zailtasunak izango dira. Haurtzaro Ikastolak, ordea, ditugun baliabideak erabiliz, Haur Hezkuntza eta Heziketa Bereziko etapak sendotu ditu.
- Etapa bakoitzeko ratioak. Hezkuntza Sailak etapa bakoitzean ordaintzen dituen ratioak oso eskasak dira. Esate baterako, DBHko 1go zikloko ratioaren bidez, ikastorduak finantzatzeko besterik ez da jasotzen. Bestalde, Bezkuntza Bereziko figurak, IKT dinamizatzaileak, IKT mantenu arduraduna, Agenda 30eko liberazioak, Hizkuntz Proiektuak, bizikidetzaren arduradunak, liburutegia, eta abar luze bat finantzatu gabe geratzen dira.
- Ez dozenteen diru-laguntza. Gela kopuruaren bidez jasotzen den diru-laguntza izanik, gastu errealekin ez dator bat.
- Ordezkapenen diru-laguntza. Lege laboral berriek behartzen duten eskubiak, amatasun-aitatasun langileen eskubideak eta Gizarte Segurantzaren hobariak desagertzeak ordezkapen gastuak handitu ditu.
- Ordainketa eskuordetuko sistemaren erabakiak. Irakasleei ordaintzeko sistema honek zenbait antzinasun ordainketa ez ditu onartzen, legalak izan arren.
- Irakasleen soldaten ekiparazioa. Hezkuntza Sailak azken hilabeteetan bolo-bolo darabilen gaia da, batetik, irakasleen soldaten ekiparazioa eta, bestetik, ez du inolako diru-laguntzarik aurreikusten ez dozenteen soldaten ekiparaziorako. Erabaki honen bidez ez dira irakaskuntza baliabide gehiago ematen, soldatak parekatzen dira soilik. Haurtzaro Ikastolako Kontseilu Errektoreak ekiparazioaren eragin ekonomikoa baloratuko du eta eraginaren berri emango du.

Hezkuntza Sailak zer finantzatzen ez duen argi utzita, hauxe da 2023-24 ikasturtean kuota osagarrietatik gastu laboralen defizita estaltzeko erabilitako zenbatekoa: 140.681€.

2.3.1.2. Altxortegia

2024-08-31: altxortegiko egoera 692.494 eurokoa da. Momentu horretan udako lanen ordainketa guztiak ez zeuden eginak, horiek hurrengo hilabetean egin baitira.

2.3.1.3. Maileguen egoera

Maileguen egoera ikasturtearen itxieran hauxe da: 779.985 euroko zorpetzea. Kopuru honen barruan udako lanen finantzaziorako eskatutako 300.000 euroko mailegua ere sartzen da. 2024ko irailean argitaratutako HEZKOOP diru-laguntzaren ebazpenaren arabera, maileguaren zenbatekoa jasoko dugun diru-laguntzara doituko da. Bestalde, hiruzpalau ikasturtetan zorpetzea oso maila apalean kokatuko da.

2.3.1.4. Autofinantzazioa

Ikasturte honetan Xanistebanetako txosna bideratu da. Ikastola Egunean ere autofinantzazio lanak egin ziren.

2.3.1.5. Udalaren akordioak duen eragin ekonomikoa

Haurtzaro Ikastolak eta Oiartzungo Udalak, irizpide berdinak kontuan hartuz, hitzarmena berri du 2022-25 urteetarako:

a) **Ikastolako mantentze lanetarako gastuak.** Bertan, mantentze horniketak, konponketa txikiak, argindarra, erregaia, kanpoko garbiketara zerbitzua, garbiketarako materiala, atezainari ordaintzeko diru-laguntza eta berogailuen mantentze lanetarako kontratua sartzen dira. Urte honetan garbiketara kontratuaren berritzeak izan du eragina.

2024. urteko zenbatekoa: 412.527 €

b) **Ikastolako lan handien diru-laguntza.** Hitzarmenaren atal honetan, ikastolak egiten dituen inbertsio eta mantentze lan handien laguntza zehazten da. Hitzarmen berrian atal hau ere badago.

c) **Urrutiko auzoetarako garraio zerbitzuaren diru-laguntza.** Haurtzaro Ikastolak eta Oiartzungo Udalak herriko Eskola Agenda 21 taldean garraioaren arazoa bere osotasunean aztertuko duen proposamena lantzeko konpromisoa hartu zuen. Ikasturte horretan (2014-15), ikastolako garraio zerbitzua Xorrola herriko autobus zerbitzua erabilia bideratzen da DBHn, zati batean. Ondorioz, akordioaren atal honek ez du zuzeneko diru-laguntzarik.

2.3.1.6. Ikastolen Elkarteko Elkartasun Kutxa

Ikastolen artean gure ezaugarririk garrantzitsuenak ELKARTASUNA da. Gurean, oinarrizko bi eginkizunetan oinarritzen da elkartasuna:

- **Langile soberakinak birkokatze hitzarmena**, Lan Hitzarmenean idatzita dagoena: soberakinak dituzten ikastoletako langileak beharrak dituzten beste ikastoletan birkokatze ahalegina egiten da. Azken urteotan, kasu guztiak bideratu direla aipatu behar da.
- **ELKARTASUN KUTXA**. Elkartasun Kutxaren helburua Euskal Herri osoko proiektu estrategikoei edo egoera berezian dauden ikastolei kapitalerako diru ekarpenak ematea da. Ikastolen Elkarteko talde bat arduratzen da hain garrantzitsua den proiektu nazionalerako baliabideak kudeatzeaz.

Beheko laukian, 2024ko azaroaren 14an Ikastolen Elkarteko Batzar Nagusia landu den proposamena jasotzen da:

ELKARTASUN KUTXARAKO PROPOSAMENA 2025			
		ESKAERA	PROPOSAMENA
Senpere kolegioa	Senpere	400.000€	400.000€
Ikastolen Etxea	Kanbo	46.272€	46.272€
Argia Ikastola	Tutera	120.000€	123.000€
Ibaialde Ikastola	Lodosa	110.000€	110.000€
Argantzun Ikastola	Argantzun	50.000€	50.000€
GUZTIRA		729.272€	736.272€

2.3.1.7. Bideragarritasun plana

Txostenaren hasieran, egindako inbertsioei buruz eta Hezkuntza Sailaren jarreraz jardun gara. Agertoki hauek guztiak kontuan hartuz puntu hauetan oinarritzen da gure bideragarritasun plana:

- Maileguen aurre-amortizazio planarekin jarraitu, etorkizuneko erronkak aurre egiteko beharrezkoa.
- Onarpen dekretuak eta gelen kontzertazioak berebiziko eragina izango du.
- Matrikulazioak eta ikasle kopuruaren garapenak berebiziko garrantzia izango du.
- Gastu orokorren kontrola eta prezioen igoera handia kontuan hartu da.

2.3.2. 2023-24ko Kuota Osagarriak eta Ikastolaren Beka Sistema

2.3.2.1. Kuota Osagarrien Erabilpena

Haurtzaro Ikastolak 2023-24 ikasturtean 359.004 euro jaso ditu familiek ordaindutako Kuota Osagarrien kontzeptuan. Kuota Osagarrien ekarpena lehen puntuan adierazitako defizitak estaltzeko erabili da. Ikastolak defizit hauek guztiak estaltzeko diru-laguntzak jasoko balitu, Kuota Osagarriaren birplanteaketari ekin beharko lioke.

2.3.2.2. Kuoten taula

2004ko Batzar Nagusian irakaskuntza kuota KPI indizearen arabera eguneratzea onartu genuen. Kontseilu Errektoreak KPI indizearen igoera proposatu du

Taula honetan, 2024-25 ikasturteko kuotak agertzen dira:

1. Kuota osagarria (12 hilabetetan)

	1. senidea	2. senidea	3. senidea
HAUR HEZKUNTZA	33,86€	25,39€	22,01€
LEHEN HEZKUNTZA	38,70€	29,03€	25,16€
DBH	43,53€	32,65€	28,29€

2. Jantokiko kuota (eguneko kuota / hileko kuota)

Eguneko kuota	6,44 €
Hileko kuota (5 egun)	113,27€/10 hil.

3. Garraio kuota (12 hilabetetan)

1 eta 2 bidaia	33,41 €
----------------	---------

4. IKTei dagokien kuota (2025eko uztaila eta abuztua)

	Bazkideko
Uztaila	25,00 €
Abuztua	25,00 €



2.3.2.3. Ikastolaren beka sistema

Haurtzaro Ikastolak, bere sorreratik, ikastolako komunitatearen barruan elkartasun irizpidea izan du proiektua aurrera eraman ahal izateko aldarria. Hasierako urteetako auzolanak, mantentze lanetarako taldeak, garbiketa taldeak, finantzazio taldeak, eta abar... bazkideen artean bideratu izan dira.

Gaur egun elkartasun printzipioak indarrean jarraitzen du, eta horregatik gogorarazi nahi dizuegu 1990. urtetik badugula ikastolan **barneko beka sistema martxan**, Eusko Jaurlaritzak ematen dituenekin bateragarriak diren bekekin osatua.

Beka arautegiak ikasturte berrituan atal hauek hartzen ditu kontuan:

- Kuotak ordaintzeko zailtasunak dituzten familiak – kuota finkoaren planteamendua.
- Kuota murrizketa, irakaskuntza kuoten murrizketa.
- Gastu guztien beka.
- Egoera berezian dauden familien kasuak, Udaleko Gizarte Ongizatearekin elkarlana.

Aipatu behar da, kasu guztietan, Hezkuntza Sailaren beken osagarri direla eta familia bakoitzaren errenta mailaren arabera banatzen direla, uneko egoerak ere kontuan hartuta.

Kontseilu Errektoreko Beka Batzordeak, bereziki azken bi ikasturtetan, indartu du barruko beken dotazioa. Beka arautegia kontuan hartuta, ikasturteko barruko beka eta laguntza sistema bideratzen ditu.

Haurtzaro Ikastolako proiektua integratzailea da eta bertan egoera ekonomiko guztiek dute lekua.

HAURTZARO IKASTOLAKO BALANTZE BATERATUA 2023/2024

AKTIBOA

2023/24	2022/23
---------	---------

IBILGETU MATERIALA.....	8.502.467,79	8.168.455,58
OUP, EKARTASUN KUTXA EKARPENAK.....	377.102,26	377.108,26
BESTE ERAKUN INBERTSIOAK, E.J EPE LUZEAN.....	56.565,69	122.821,17
IBILGETUAREN AMORTIZAZIOAK.....	-6.429.217,20	-6.284.091,39
IBILGETUA.....	2.506.918,54	2.404.293,62
ITZULTAKO ERREZIBOAK ZORDUNAK.....	44.589,99	3.389,01
ZORDUNAK EPE MOTZEAN.....	5.000,00	1.959,66
ZORDUNAK.....	49.589,99	5.348,67
DIRUZANTZA.....	692.494,46	655.256,83
TESOERIA.....	692.494,46	655.256,83
PERIODIFIKAZIO AJUSTEAK.....	-35.785,30	19.948,24
PERIODIFIKAZIO AJUSTEAK.....	-35.785,30	19.948,24
AKTIBOA GUZTIRA.....	3.213.217,69	3.084.847,36

PASIBOA

2023/24	2022/23
---------	---------

KAPITAL SOZIALA.....	10.365,00	10.695,00
ERRESEERBAK.....	1.197.210,74	1.124.194,54
AURREKO EKITALDIKO EMATZAK.....	-149.574,60	-74.227,48
GALERAK ETA IRABAZIAK.....	-5.032,32	-9.391,39
KAPITALA ETA ERRESEERBAK.....	1.052.968,82	1.051.280,67
HEZK. SAULA ETA UDAL. INBERTSIO FONDOK.....	272.895,85	345.872,91
HURRENGO EKIT SARBERAK.....	272.895,85	345.872,91
IBILGETUA BERRITZEKO FONDOK.....	350.000,00	300.000,00
MAILEGIUAK - AURREZKI KUTXAK.....	672.200,90	592.631,34
EPE LUZEHARTZEKODUNAK ETA PROB.....	1.022.200,90	892.631,34
HORNITZAILERAK, DOTAZIOAK.....	199.475,20	123.293,43
HURRENGO URTEAKO GASTU LABORALA.....	392.219,95	392.886,80
P.F.E.Z. HARTZEKODUNA.....	65.450,05	64.986,16
GIZARTE ASEGURANTZA ORD. GABEA.....	80.790,86	89.652,84
MAILEGIUAK EPE MOTZEREA.....	107.785,65	108.978,24
KAUDIMEN GABEZIARRAKO HORNIDURAK.....	19.430,41	15.344,97
EPE MOTZEREA GALDAGARRIA.....	865.152,12	795.062,44
PASIBOA GUZTIRA.....	3.213.217,69	3.084.847,36



HAURTZARO IKASTOLAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUA 2023/24

	2023/24	2022/23	SARRERAK	2023/24	2022/23
GASTUAK					
EROSKETAK PAPELERILIBRERIESKULAN.....	22.218,39	25.466,78	SALMENTAK TEXTU LIBURUAK.....	132.945,86	132.097,54
EROSKETAK TEXTU LIBURUAK.....	94.774,72	98.425,93	SALMENTAK.....	132.945,86	132.097,54
BESTE EROSKETAK (KIPOL, INFORM.MAT).....	56.837,03	68.601,03	SALMENTAK.....	7.350,26	8.781,43
EROSKETAK.....	173.830,14	192.493,74	SARRERAK IKASLE GARRAIOA.....	444.254,54	419.094,92
GARRAIO GASTUAK.....	47.413,64	60.667,51	SARRERA OSAGARRIAK.....	359.004,08	359.377,30
JANTOKI ETA ZAINTZA GASTUAK.....	456.593,15	450.857,29
ORIENTARIDE BALAZIO ZERBITZUAK.....	13.313,23	13.036,71
ARROKAKETA IRABAZIEN KONTUARI.....	6.361,04	6.361,04
ARROKAKETA IRABAZIEN KONTUARI.....	12.286,06	12.286,06
IK.MANTENUA, GARBIKETA, ARGIKETA E.A.....	170.183,03	170.183,03
.....	280.162,95	290.222,56
KANPOKO ZERBITZUAK.....	951.160,66	991.773,42	KUOTEN SARRERAK.....	810.608,88	787.253,65
IRAKASLEGAREN ALOKARIUAK.....	2.629.127,16	2.758.398,15	SUBENTZIOA ELUSKO JAURLARITZA.....	3.850.683,72	4.000.718,44
EZ IRAKASI EGOAREN ALOKARIUAK.....	182.221,78	210.269,72	SUBENTZIOAK UDAL A MANTENUA.....	442.527,86	458.246,96
ORDEZKOAK.....	114.913,21	125.130,90	SUBENTZIOAK BESTE ERAKUNDEAK.....	99.385,73	131.611,51
BESTE GASTU SOZIALAK.....	31.750,42	30.984,79
GIZARTE SEGURANTZA.....	948.738,52	919.700,08
PERTSONAL GASTUAK.....	3.906.751,09	4.044.483,64	SUBENTZIOAK.....	4.392.597,31	4.590.576,91
GASTU FINANTZIEROAK (HAURTZARO).....	34.039,92	29.675,12	SUBENTZIOA E.J.FINANTZIAKETA.....	42.977,55	46.157,29
BESTE GASTU FINANTZARIOAK,ZERGAK.....	2.514,07	2.731,98	SUB E.J.INE FONDOA.....	6.720,53	33.982,79
GASTU FINANTZARIOAK.....	36.553,99	32.407,10	SUBENTZIO FINANTZARIOAK.....	49.698,08	80.140,08
BESTE GASTUAK idazk. fitxa. Segurak.....	12.353,71	12.456,61	SARRERAK IKASLEEN IBILALDIAK.....	93.055,76	91.418,10
IKASTOLEN ELKARTEA-ELKARTASUN KUTXA.....	25.379,10	23.101,34	IKASTOLAREN EGUINA, BESTE JAIK.....	12.624,00	22.675,57
OIARTZO BATXILERGO IKASTOLA.....	29.903,66	30.000,00	IHARDUERA KULTURALAK.....	49.578,48	47.566,33
PUBLIZITATE, MATRIK, HARREMANAK.....	13.980,58	15.592,93	SARRERA FINANTZARIOAK.....	0,00	3,61
HAINBAT GASTU.....	3.968,20	2.344,84	A PARTEKO SARRERAK.....	13.747,23	35.282,78
EKINTZA ESTRATESKOLARRAK.....	19.076,62	0,00	BESTE HAINBAT SARRERAK.....	169.005,47	196.946,39
HAINBAT GASTU.....	92.308,16	71.039,21
IKASLEEN IBILALDIEN GASTUAK.....	92.347,82	91.656,03	EKITALDIKO GALERAK.....	5.032,32	9.381,39
IKASTOLAREN EGUINA, BESTE JAIK.....	19.477,98	32.626,88
IHARDUERA KULTURALAK.....	39.978,56	37.135,02	EKITALDIKO GALERAK.....	5.032,32	9.381,39
BESTE IHARDUERAK.....	191.894,96	161.477,89
AMORTIZAZIOAK.....	165.125,81	180.324,31	EKITALDIKO GALERAK.....	5.032,32	9.381,39
AMORTIZAZIOAK.....	165.125,81	180.324,31
IBILGETUKO BALIOGALTZE DOTAZIOA.....	50.000,00	100.000,00
BEKETARAKO DOTAZIOA.....	20.000,00	10.000,00
DOTAZIOAK.....	70.000,00	110.000,00
GASTUAK GUZTIRA.....	5.559.887,92	5.796.395,96	SARRERAK GUZTIRA.....	5.559.887,92	5.796.395,96

2024/25 IKASTURTEKO AURREKONTUA		AURREKONTUA 24-25
G A S T U A K		
EROSKETAK PAPELERILIBRERIEKULAN.....	33.800,00	AURREKONTUA 24-25
EROSKETAK TEXTU LIBURUAK.....	100.000,00	110.000,00
BESTE EROSKETAK (KIROL INFORM.MAT).....	73.900,00	
EROSKETAK.....	207.700,00	
GARRAIO GASTUAK.....	48.616,00	3.100,00
JANTOKI GASTUAK / ZAINZA GASTUAK.....	418.830,00	378.645,51
ORIENTABIDE EBALUAZIO ZERBITZUAK.....	12.600,00	341.655,25
AHOLKULARITZA JURIDIKOANOTARIA.....	6.500,00	
KONPONKETA,IRAUNKETA,LANAK.....	144.000,00	
IK.MANTENUA, GARBIKETA, ARGIKETA E.A.....	282.452,80	
KANPOKO ZERBITZUAK.....	912.998,80	723.400,76
IRAKASLEGAREN ALOKAIURUAK.....	2.586.369,62	3.918.731,44
EZ IRAKASLEGOAREN ALOKAIURUAK.....	189.280,00	442.527,88
ORDEZKOAK / ZAINZA.....	125.000,00	69.500,00
BESTE GASTU SOZIALAK.....	32.900,00	
GIZARTE SEGURANTZA.....	990.600,00	
PERTSONAL GASTUAK.....	3.924.149,62	4.430.759,32
GASTU FINANTZIEROAK (HAURTZARO).....	36.451,45	71.875,56
BESTE GASTU FINANTZARIOAK,ZERGAK.....	3.000,00	94.000,00
GASTU FINANTZARIOAK.....	39.451,45	63.705,00
BESTE GASTUAK(Idazk,Itmoa,Seguroak.....)	16.586,00	14.000,00
BESTE GASTUAK.....	16.586,00	500,00
IKASTOLEN ELKARTEA-KUOTAK.....	10.000,00	
IKASTOLEN ARTEKO ELKAR. KUTXA.....	16.000,00	
GIARTZO BATXILERGO IKASTOLA.....	40.000,00	
PUBLIZITATE, MATRIK. HARREMANAK.....	14.900,00	
EKINTZA ESTRAESKOLARRAK.....	9.000,00	
BEKA KOMISIOA,HAINBAT GASTU.....	3.000,00	
HAINBAT GASTU.....	92.900,00	172.205,00
IKASLEEN IBILALDIEN GASTUAK.....	94.000,00	9.945,23
IKASTOLAREN EGUNA, BESTE JAIK.....	29.300,00	
IHARDUERA KULTURALAK.....	26.100,00	
BESTE IHARDUERAK.....	149.400,00	9.945,23
AMORTIZAZIOAK.....	175.000,00	
AMORTIZAZIOAK.....	175.000,00	
INBERTSIO DOTAZIOA.....	0,00	
GASTUAK GUZTIRA.....	5.518.185,87	5.518.185,87



2.4. Pertsona ereduak

23-24 ikasturtean martxan jarritako talde pedagogikoak urratsak egin ditu *oinarrizko hezkuntzaren amaieran zer nolako ikasleak nahi ditugun* galderaren inguruko hausnarketan. Ez da baina, gauetik egunera egin daitekeen gogoeta, etxe barruan nahiz Ikastolen Elkartean adostasun handia behar duen gaia da. Izan ere, adostuko dugun ereduak gure jardun osoa antolatuko du, ikasgelako eta kanpoko curriculumak, baita ikasirakas prozesuaren metodologia eta hain garrantzitsua den ebaluazioa ere.

Eskolatzearen amaieran Haurtzaro Ikastolak lortu nahi lituzkeen ikasleei dagokienez, ez gara esaten ari molde bereko pertsonak nahi ditugunik, ez gara aniztasuna ukatzen ari. Lehenengoz, geure buruari galdetu diogu ea garatzen lagundu nahi dugun pertsonarentzat zer-nolako bereizgarriak edo ezaugarriak nahiko genituzkeen. Halaber, galdera horri erantzuten hasi aurretik, beharrezkoa iruditu zaigu pertsona hori nolako testuinguruan biziko den irudikatzea eta, irudikatzearekin batera, aurreikustea testuinguru horretan aurrera egiteko eta eraldatzeko garatu beharko lituzkeen ezagutzak, trebetasunak edota konpetentziak zein liratekeen.

Alegia, herri zein zibilizazio gisa egun ditugun eta etorkizunean izango ditugun erronkei aurre egiteko pertsonak zein ezaugarri behar dituzten definitzen ari gara, gizartearen kideak izango diren pertsonenak.

Bestela esanda, bizi dugun, aurreikusten dugun eta eraldatu nahi dugun errealitate horretako pertsonak zer *tasun* izatea nahi dugun adierazten ari gara, baita bereizgarri horietako bakoitza zehazten duten ezaugarri multzoak definitzen ere.

Baina ikastola bakoitzak bere definizioa garatuko badu ere, iparra Ikastolen Elkarteak 2023an argitaratutako Ikastolen Hezkuntza Marko Orokorrak jartzen du, berau baita Haurtzaro Ikastolarentzat erreferentzia, orientaziorako eta kohesiorako elementua. Gauzak horrela, Ikastolen Elkartetik bultzatzen den pertsona-ereduak bost bereizgarri ditu: barne-sentotasuna duen pertsona, euskalduna, eraldatzailea, erabakitzaile-ekintzailea eta kooperatiboa.

Bost bereizgarriok gure egin ditugun arren, ezaugarri horietako bakoitzaren definizioa adostean dago gakoa. Horretarako, bereizgarri bakoitza xehatzen ari gara, aletzen, ezaugarri bakoitzaren izatea, ikuskera, muina, helburuak eta egitekoa berdín ulertzen.

Eraldaketakarako prozesuaren lehen geltokian gaude, bereizgarrien eta haien ezaugarrien definizioan. Bidaia horretan, geure buruari ezinbestean galdetu beharko diogu zein diren gure eguneroko hezkuntza praktikaren helburua eta zentzua; zertarako egiten dugun egiten duguna, eta zer egin beharko genukeen lortu nahi duguna lortzeko. Definitzen ari garen pertsona eredu horrek, halaber, erronkari aurre egiteko moduko profesional kualifikatuak eskatzen ditu, testuinguru berriari aurre egiteko moduko adituak, bere lan eremuari dagozkion egoeretan pentsamendu analitikoa eta sistemikoa aplikatzeko gaitasuna dutenak.

Hurrengo geltokia, berriz, ezaugarri bakoitza lantzeko eta ebaluatzeko balagarriak izango zaizkigun inpaktuak zehaztea izango da. Inpaktu horiek hezitzaileari lagungarri izango zaizkio ikasi-esperientziak eta esku-hartzeak pentsatu eta antolatu ahal izateko.

Helburu horri begira jartzeak hezkuntza eredu definitzen lagunduko digu, gure identitatearekin bat datozen eta, aldi berean, gaur eta biharko erronkei erantzuteko gaitasuna izango duten pertsonak garatzen lagunduko digu. Gainera, pertsonaren garapenean zentratutako proposamena izango da gure hezkuntza eredu, pertsonaren “garapenarekin” ulertuta pertsona bere dimentsio guztietan (soziala, kognitiboa, motorra, emozionala, existentziala...) garatzen laguntzea dela. Beraz, askotariko eremuetako ezagutzak eraikitzen laguntzetik harago, egiten ikastetik harago, izaten ikasteko hezkuntza proposamena jarri nahi dugu mahai gainean.



2.5. Errealitate bihurtu den jolas eremua

Eraldaketak jolasteko modu berriak ekarri ditu. Esperimentaziorako, imitaziorako, interakziorako, bizitzeko, egoteko eta aritzeko molde berriak. Argi dago gelan egiten diren balioen lanketa eta euskararen lanketa sustatu behar direla espaziorik espazio, barrualdean nahiz kanpoaldean, osotasunak hezkuntza proiektua elikatzen duelako. Prozesu parte-hartzailea eta egindako inbertsio ekonomikoa handiak izan dira, horregatik, zaila egiten zaigu inork egindako ahalegina hain arin zapuztu nahi izatea. Halaber, ez dezagun soilik mehatxuen irakurketarik egin (txikizioak, zikinkeria, istripuak), aritu gaitezen nagusiki eskaintzen dituen aukerez eta eremuaren balio pedagogikoaz didaktika egin dezagun.

Egindako lanek asfaltoa eta hormigoia aldatzea ekarri dute nagusiki, ikastola-zuhaitz, -lorategi edo etorriko diren -baratzeekin. Argi dago ikastetxeko patioak birnaturalizatzek eragina duela haurren osasun mentalean eta fisikoan. Helburu hori izanik, “basa-patioa”, “eko-patioa”, hots, patio jasangarria egitea zen helburuen artean genuenetako bat. Espazioak ohitura osasungarriekin lotura egitea dakar, eta, hein handi batean, 2030 Agendaren hainbat helburu praktikatzeko aitzakia da: 0 zabor, 0 plastiko.

Alde batetik, eskolako **jolastokiak «berdeago»** egiteak aukera emango digu jolaslekuak udaberri-udan hartzen zuen tenperatura hobetzeko. Azken urteetako bero boladek erakutsi dute babesleku termikoak sortu behar direla graduak jaisten laguntzeko eta herritarrei arnasa emateko. Umeek ikastolan ordu asko ematen dituzte egunean, eta funtsezkoa da ikastetxean bertan berdeguneetara sartu ahal izatea. Beraz, klima-aldaketaren erronkari aurre egitea bilatu nahi izan dugu jolas eremuaren eraldaketarekin ere.

Era berean, eraldaketa horrek beste maila batzuetan ere funtzionatuko duela espero dugu, ikasleen osasun mentalean eta fisikoan eragin positiboa baitu. Espazio berriak jarduera fisikoa sustatzeaz gain, naturarekin harremantzeko modu berriak eskaintzen ditu. Beraz, patioa birnaturalizatzea, ikastolako patioa lorategi bihurtu nahi izan dugu, besteak beste, parke. Ehundura aukera anitzak eskuratu ditugu **esperimentatzeko**; aterpeak eta babeslekuak jarri dira itzaletan **egoteko eta aritzeko**, **hitz egiteko**, harremantzeko, jolasteko, amets egiteko; ibilbide aukera desberdinak marraztu dira aukera berriak probatzeko, **imitatzeko, harremantzeko...** leku aberatsetan aberatsa den espazio batean.

Patioa naturalizatzeko ingurumen-irizpideak kontuan hartzea dakar, baita ikasleen kompetentzia zientifikoa lantzea ere. Izan ere, landareria, gune bioanitzak eta uraren zikloak lantzeko balio du. Hezkuntza-komunitate osoak parte hartuz sortutako diseinuak, berdeguneak, materia erabilera anitzak, uraren erabilera eta aprobetxamendua eta osasunarekin lotutako ohitura osasuntsuak praktikatzeko aukera paregabeak eskaintzen dizkigu.

Gainera, hesirik gabeko patioaren kontzeptua lantzea indargunea delakoan gaude, herri onurako ikastola baita gurea, herritik sortua eta herritarrentzat. Beraz, Oiertzungo herriarentzat arnagune berde berria da, asfaltorik eta hormigoirik gabeko eremu irekia.

Hautzaro Ikastolako patioaren eraldaketak halaber, bestelako erronkarik ere izan du: genero-estereotipoak gainditzea eta ikasle guztiek, sexu bereizketarik egin gabe, edozein premia dutela ere, eskubide berdintasunean hezteko aukera izatea, espazio inklusiboagoak sortuz. Arestian aipatu moduan, jolastokiak beste pieza bat gehiago dira gure hezkuntza proiektuaren garapenerako.

Gauzak horrela, **berdintasunerako jolastokia da gurea**. Hori lortzeko, sexu askotariko umeen arteko elkarrekintza-mota aldatu behar da, joko arautua maite ez dutenek haien gustukoak diren jarduerak egiteko aukerak bultzatuz. Espazioaren erabilera baldintzatzen duten hierarkiak apurtu behar dira eta guztiek erabili ahal izateko nortasunaz jantzi. Kirol estandarrek nagusitasuna eta lehia bultzatzen dute, eta horrek, hainbatetan, indarra tarteko, bazterkeria dakar. Espazioen dibertsifikazioak guztientzako eskaintza bermatzea ekarriko duelakoan gaude, erabiltzaileak anitzak baitira. Baina hau noski ez da espazioaren aldaketarekin automatizatzen den prozesua, helduok aktiboki parte hartzearen eta heziketaren ondorioa da.

Diseinua aldatzeak, genero ikuspegitik neutraltasunerako aukera eskainiko du, baita interesen arabera antolatutako buruzko araudiak ezartzeko eta kooperazioan jarduteko, lankidetzan eta ez lehiakortasunean. Mundu guztiak irabazi du, baita kirol estandarretan/arautuetan jokatzeko dutenek ere, eremu naturalak jarduera-aukera handiagoa eta erreagoa dakarkielako, gizaritearen aniztasuna bera ulertzen lagunduz.

Elkartzeko modu berriak eskaini ditu eraldaketak; izan ere, orain arte adinaren arabera araututako espazio antolatua izatek, adinkide ez diren kideen arteko jolasteko era berriak sustatzeko ahaleginean jarri gara, botere nagusitasun harremanak lantzeko abagunea izanik.



Azkenik, eremuaren zaintzak beste ikaskizun bat dakargu: nitasunetik kolektiboan pentsatzera salto egitea, erantzukizunez eta arduraz jokatzeari norberarentzat, baina baita guztiongatik ere.

2.6. Udalarekin harremanak

Haurtzaro Ikastola herritik sortu zen eta, kooperatiba izaerari esker, herriarena izaten jarraitzen du. Gurasoek, langileek eta ikasleek osatzen dugun komunitateak etorkizuneko oiartzuarrak hezten lan egiten dugu. Hezkuntza bizitzaren parte da, jaiotzen garenetik hiltzen garen arteko prozesua izanik, pertsona oro da hezigarri eta hezitzaile aldi berean. Ikastolan gure ikasleak herritar autonomo eta burujabe gisa hezi daitezela lan egiten dugu eta, horretarako, ezinbestekoa da Oiartzungo herriarekin duten harremana sustraitzea. Oiartzun ezagutuz eta bertako bizitzan parte hartuz, herriak gure ikasleak hezten ditu eta gure ikasleek herria egiten dute. Horregatik, aurreko ere, herriari erreferentzia egitean ezinbestekoa zaigu Oiartzungo Udalak Haurtzaro Ikastolari eskaintzen dion laguntza eskertzea.

2023-24 ikasturtean zehar, Batzar Nagusian aurkeztutako lan ildoak garatu genituen Udalarekin elkarlanean.

Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoaren kudeaketa

Udal Ikastola Partzuergoaren organo erabakitzailea Zuzendaritza Batzordea dela, bertako partaideak izan ziren:

- Udaleko ordezkariak: Joana Mendiburu eta Garazi Urdampilleta.
- Haurtzaro Ikastolako ordezkariak: Kristina Boan zuzendaria eta Iñaki Arbelaitz Kontseilu Errektoreko ordezkaria.
- Partzuergoko zuzendaria: Iraia Etxebeste.
- Haurtzaro Ikastolako administraria: Agustin Vital.

Batzordea hilabetean behin bildu izan da udaletxean. Bertan ohiko funtzionamenduko gaiak aztertu eta erabaki izan dira, eta kontuan hartu ordezkari bakoitzak egindako proposamenak. Ikastolaren aldetik, Plan Estrategikoan jasotako helburuak proposatu eta eztabaidatzen dira.

Herriko lan taldeetan parte-hartzea

Udalarekin elkarlanean, ikastolak hainbat udal lantaldetan parte hartu ohi du:

Udal Kirol Kontseilua, Euskara Batzarra (Burujabetzak), Agenda 2030, Adin Txikikoen Mahaia, Xanistebanetako Jai Batzordea eta baita Udalgure partehartzea beharrezkoa ikusi duen beste hainbat forotan ere.

2024-2025 ikasturtean udalarekin lanerako eremuak partekatzen jarraituko dugu. Horien adibide ditugu Oinherri eta Artaziak-ekin batera haurren parte-hartzea sustatzeko kanalaren inguruan egiten ari garen proiektua eta UEMArekin elkarlanean martxan jarri den euskara eta kulturartekotasuna egitasmoa.

3. HEZKUNTZA ARLOA

Hautzaro Ikastolan berrikuntza pedagogikoekin jarraitzen dugu aurten-go ikasturtean ere. Ikastolak jaiotzetik aurrerakoiak izan gara, pedagogikoki inkorformistak eta egiten duguna etengabe aztertu, hobetu, moldatu eta egokitzeko grina izan dugu. Gogotsu eta sendo heltzen diegu datozen proposamenei, eta hezkuntza inoiz amaitzen ez den bidea denez, dagoeneko etortzeke dauden horietarako ere prestatzen ari gara.

Berrikuntza sakon horiek guztiak EHIk azken urteetan, pedagogia eremuan, **Hezkuntza Marko Orokorren** definizioan egiten ari den lanaren fruitua dira. Oraintxe, 28. Jardunaldi Pedagogikoetan, aurkeztu da Hezkuntza Marko berria.

Azken urteotako ahalegina Euskal Curriculumaren garapenean aurre-rapausoak ematea izan da eta printzipio pedagogiko nagusia **KONPETENTZIAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA-eredua**. Hori da IKASTOLA EREDUari, 0-18 urte bitarteko gure eskaintzari, etapaz etapa, lotura eta koherentzia ematen diona.

Konpetentzietan oinarritutako hezkuntza proposamenak hainbat alderdi ditu bere baitan:

- Esku-hartzerako proposamen didaktikoa
- Ikasmateriala eskaintzea
- Prestakuntza
- Aholkularitza
- Ebaluazioa

Baina hezkuntza-eredu horretan sakontzen jarraitu nahi dugu eta horretarako, pertsona ereduaren definizioan eta lanketan murgildu beharra daukagu. Izan ere, une honetako testuinguruak eta gizarteak ziurgabetasuna eta erronka berriei ere erantzutea eskatzen digu. Eta hala sortzen zaizkigu lehen galderak: Nolako ikasleak nahi ditugu? Zer ezaugarri nahi dugu gure ikasleek garatzea? Nola eragin nahi dugu haien izatean eta izaeran? Nolako esperientziak bizi ditzaten nahi dugu? Nolako atxikimendua duten pertsonak hezten lagundu nahi dugu? Funtsean, gure geletako ikasleek bizituko duten ingurunea ezagutzera, interpretatzera, baloratzea eta eraldatzera gonbidatu beharko ditugu; zer-nolako pertsonak hezitu nahi dugun pentsatzea ezinbesteko lana izango da oraingo honetan.

Marko pedagogiko orokor horretan, ezin ahantzi ahal izango dugu sorreratik gurea den IKASTOLA-EREDUA, NOR garen eta ZER garen definitzen baita bertan.

Hezkuntza Marko Orokor honek ZER-NOR garen, ZER LORTU NAHI DUGUn eta NOLA LORTU NAHI DUGUn barnebiltzen ditu.

3.1. 0-18 eskaintza: datuak eta egitasmoa

Haurtzaro Ikastolaren eskaintza pedagogikoak 0-18 adinei erantzuten die.

0-3 urtekoak URMENDI Udal Ikastola Partzuergoan hasten dira. Partzuergo izaera du proiektu honek, eta Udalarekin batera sortua du Haurtzaro Ikastolak: bakoitzak %50eko partaidetzarekin. 3-16 eskaintza da HAURTZARO IKASTOLARI dagokiona. 16-18 OIARTZO BATXILERGO IKASTOLAN egiten da eta Oorereta Ikastolarekin batera eskaintzen dugu.

Gure proiektuak eta adin horietako eskaintzari buruzko datuak taula honetan laburbiltzen dira:

	Adina	Ikasleak	Taldeak	Irakasl.	Zerb. Lan.
Urmendi	0-3	118	15	20	3
Haurtzaro Ikastola	3-6	152	8	9	Jangela: 22 Mantenua: 2 Idazkaritza.-administrazioa: 4 Garraioa: 1 Eskolaz Kanpoko Hezitzaileak: 37
	6-12	365	18	25	
	12-16	286	12	21	
Oiartzo	16-18	192	6	18	-

3.1.1. Egitasmo pedagogikoa

3.1.1.1. Haur Hezkuntza etapa: 0-6 urte

Haurtzaro Ikastolan Haur Hezkuntza etapa bakar bezala ulertzen badugu ere, 0-6 etapa alegia, 0-3 zikloa Udalarekin partekatzen dugun proiektua denez, Urmendiko adin tarteari HHren 1go ziklo izaera emateko urratsak egiten ari gara. Etapa izaera eremu pedagogikoan heziketaren ikuspegi bateratuak ematen du, hezitzaileak haurra ikusteko moduak. Eta lanketa hori egiten ari gara.

Hori horrela izanik, etapako ziklo bakoitzak ezaugarri propioak ditu.

A) 0-3 zikloa: Urmendi

0-3 zikloko haurren **heziketa osoa** bultzatzen dugu Urmendi Haur Eskolan. Haurraren garapen egokia bideratzen laguntzen dugu, bakoitzaren beharrak eta erritmoak errespetatuz eta bakoitzaren martxara egokituz. Haur Hezkuntzako lehen zikloa (0-3) **ibilbide bat** bezala irudikatzen dugu.

Sehaskako haurrekin hasten da ibilbidea. Lehen urte horretan haurra **seguru eta ongizatean sentitzea** da helburua. Ertainetan, berriz, poliki-poliki **autonomiaranzko lorpenak** agertzen hasiko dira, eta 2 urteko geletan, gure ibilbidearen amaieran, haurrak **sozializatorako bidea** hartuko du.

3 urteko ibilbidean, hauek dira ardatz nagusiak: **haurren beharrak asetzeara, espazio, material eta antolaketa egokia eskaintzea eta heldua bide lagun izatea**. Horren harira sortu genuen gure leloa: **Jolastuz, izan eta hazi / Lagunduz, izan eta hezi**.



Izateko, esperimintatzeko eta pentsatzeko (handitzeko) erabiltzen ditu haurrak jolasa eta mugimendua.

Bakoitzaren prozesua errespetatzeari garrantzia handia ematen diogu. Beste era batera esanda, haurrak bere inizatibaz eginiko lorpenak plazerrez bititzea lehenesten dugu.

Jolas librea eta proposamen irekiak dira haur eskolako dinamika nagusiak. Horretarako, material eta espazio egokiak garrantzitsuak dira: esaterako, sormena bultzatzeko material neutroak, arriskurik gabeak, talde eta adin bakoitzera egokituak, ahalik eta material naturalenak... Haurra bera izango da materialari bizia emango diona, bere gaitasunak eta ideiak garatuz. Bestalde, jarduera proposamenak irekiak dira, eta ez zuzenduak edo bideratuak; haurra izango da hezitzaileak proposaturiko jardueran bere inizatibaz eta bere modura murgilduko dena. **Sortze eta gauzatzeko prozesu propio horri garrantzia ematen diogu.**

Haurraren jardunean garrantzitsua da, nola ez, espazioa nola dagoen antolatua eta prestatua. Uste dugu gela eta txoko atseginak, goxoak, etxearen ahalik eta antza gehien dutenak izatea garrantzitsua dela, detaile eta zaintza horiek denek badutelako eragina haurraren munduan.

Ildo honi jarraituz, ezin aipatu gabe utzi asteroko **psikomotrizitate saioak**. Espazio zehatzean egiten ditugun saio horietan haurrak bere gorputzaren eta bere jolasaren bitartez adieraziko du nor den eta zein momentutan dagoen.

Gure proiektuan **kalean ibiltzeak** garrantzia handia hartzen du. Izan ere, esperimintaziorako eta ezagutzarako testuinguru bikaina da. Herriak berak eskaintzen dizkigun txokoak eta inguruneak ezagutzeaz gain, naturan, kalean gozaten dugu. Horrela, sentsazio desberdinak bizi ahal izango ditugu (hotza, beroa, haizea), zoru eta erliebe ezberdinetan ibiliko gara, arriskuez jabetuko gara, eta abar.

Otordu garaiak eta loak garrantzitsuak dira haurraren ongizatean, eta ezinbestekoa da momentu horietan giro lasai eta gozoa eskaintzea, bere **erreferentziatzeko hezitzailearekin** (tutorearekin), gelakideekin eta haren gelan. Horregatik, haur eskolako gelak momentu bakoitzeko beharretara egokitzen ditugu: bazkaltze-gunea antolatuz, lotarako, jolas librerako eta hainbat proposamenetarako...

Beste ardatz nagusia **heldua da, bai hezitzailea, baita gurasoa ere**. Horrexegatik, ezinbestekoa da guztion arteko elkarlana. Gurasoekin egunero izaten dugu zuzeneko harremana gelan (bai haur eskolara sartzeko, baita haurra jasotzean ere). Izan ere, eguneroko bizipenak elkar trukatzeko balio handia du. Informazio trukeari dagokionez, ezin aipatu gabe utzi egunero haur bakoitzaren motxilar joan-etorrian ibiltzen den koaderno. Koaderno horretan tutoreak haurraren eguneroko bizipenak idazten ditu, eta familiek ere parte har dezakete bertan idatziz.

Horrez gain, batzordeen bitartez funtzionamenduan eta kudeaketan modu zuzenean parte hartzeko aukera dute. Baita suerta daitezkeen hainbat proiektutan ere.

Urmendiren beste balio erantsia bertan prestatutako janaria da. Urte batzuk badira zereal, barazki, fruta eta lekari ekologikoak erabiltzen ditugula, eta menuen osaketan ere hausnarketa eta eraldaketa prozesua egina dugu, barazki eta lekari gehiago sartuz eta menuak egiterakoan garaian garaikoa produktuak erabiliz. Horrez gain, ezin aipatu gabe utzi hornitzaileengan jarri dugula arreta azken ikasturteetan, eta helburua dela hornitzaile handiak alde batera utzi (ahal den neurrian), eta inuruko baserriak eta ekoizleekin asetzea Urmendiko elikagai beharrak.

B) 3-6 zikloa: Haurtzaro Ikastola

HH 1. zikloko proiektuaren ildoari jarraituz, HH 2. zikloan Ikastolen Elkar-teko hIZAN proiektua oinarritzat hartuta, Haurtzaro Ikastolan gure proiektu propioa lantzen eta gauzatzen ari gara.

Proiektu bizia da.

hIZAN proiektuan, haurra da bere ikasketen protagonista. Bere garapen erritmoa errespetatuz, berezko garapen ahalmenetan konfiantza adieraziz eta ziurtasun fisiko eta emozionala bermatuz, haurrak osasuntsu garatzeko heldua bidelagun izango du. Bere gogo, plazer, interes eta beharrezanetatik abiatuta, burutzen dituen jarduerak eta ekintza autonomoak izango dira haurraren ikaskuntza, eta garapen psikomotor, afektibo, sozial zein kognitiborako oinarri.



Gure eguneroko jardunean, zirkulazio autonomoak indar handia hartzen du. Zirkulazio autonomoan, haurrak aurrez diseinatutako testuinguru seguru, argi, esanguratsu eta aberats baten baitan, modu librean gune batetik bestera mugitzeko aukera izango du. Bestalde, momentu hori izango da gune bakoitzean dauden material edo gonbitetan oinarrituz, ingurukoekin elkarreaginean, jolas autonomo eta espontaneoak garatzeko aukera emango diona.

Ahokotasunean oinarritzen den Kuku emozio programa ere txertatzen ari gara. Emozio programa honen helburua da, norbere emozioak eza-gutzea, adieraztea eta kudeatzen ikastea.

Honez gain, psikomotrizitate saioek ere presentzia handia dute gure ikastolan. Psikomotrizitateak haurrari bere nahi eta desirekin konektatzen laguntzen dio. Jolasean bizitzen duen plazerak zein kideekin bizitzen duen plazer partekatua bere identitatea eraikitzen laguntzen dio. Den bezalakoa, une horretan dagoen bezala azaltzen da haurra psikomotrizitate saioetan eta den hori askatu dezake (suntsitu dezake, bota dezake, nahastu dezake, bultzatu dezake... erruduntasunik sentitu gabe) minik eman gabe eta minik hartu gabe. Bere buruaren zaintzatik eta kideen zaintzatik. Hori da psikomotrizitate saioetako arau nagusia.

Hori dena lortu ahal izateko JOLASA ezinbestekoa da Haur Hezkuntzan. Izan ere, jolasa ikaslearen garapen osasuntsuaren giltza da.

Bizitzako arazo edo erronkei eraginkortasunez erantzun ahal izateko, haurrak funtsezko konpetentziak eskuratzea ezinbestekoa da. Gainera, Iparraldeko, Nafarroako eta EAEko ikastolok Europako Markoaren baitan horiek definitzeko bidean jarrita gaude. Bien bitartean, oraindik ere, gure etapan oinarrituko 5 konpetentzien arabera ebaluatuko dugu gure ikaslearen garapena:

- **Norbera izaten ikasi:** norberaren gorputza eta gorputzaren aukerak ezagutzea, norberaren nortasuna onartzea eta norberaren irudi positiboa eratztea. Emozioak identifikatzea eta erregulatzea. Pixkanaka autonomia eta erantzukizun-ohiturak hartzea.
- **Elkarrekin bizitzen ikasi:** norberaren eta besteen pertzepzioa garatzea. Errespetuan, aniztasunean oinarritutako harremanak sustatzea. Gaztzen kudeaketa baketsua eta taldeekiko lankidetzan, oinarrituko gizar-trebetasunak garatzea.

- **Komunikatzen ikasi:** begiradak, mugimendua, sentimendua, hau da, hitzik gabeko komunikaziotik hitzen bidezko komunikazioa lortzea. Haurrak komunikatzeko lengoia mota ezberdinak erabiltzea (musikala, plastikoa,...) bere emozioak, nahiak, ideiak, oroitzapenak eta ezagutzak adierazteko.
- **Ikasten eta pentsatzen ikasi:** ulermenean oinarritutako pentsamendua garatzea. Hau da, informazioa lortu (behatuz, galdetuz, esperimentatuz...), jasotakoa ezagutza bihurtu eta beste egoera batzuetara transferitzeko gai izatea. Horrekin batera, haurra pentsamendu sortzailea eta kritikoa garatzen joango da, erabakiak hartu ahal izateko.
- **Egiten eta ekiten ikasi:** ingurune desberdinak behatzea eta aztertzea, jakin-minezko eta errespetuzko jarrerarekin. Esperimentatzea, galderak egitea, hipotesiak egiaztatzea eta planifikatzea. Eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko ekimena erakustea, alternatibak bilatuz.

Aurrez aipatutako haurra ulertzeko modua aintzat hartuta, gure eginkizuna ikastola haurren ongizate-testuingurua ziurtatzea da. Horretarako, hainbat alderdi kontuan hartzen ditugu:

- Konfiantza eta segurtasuna: konfiantzaz begiratzen dugu pertsona; bere gaitasun, zailtasun eta ametsak errespetatuz garapen osasuntsu bat izan dezan.
- Espazioak eta materialak: haurren beharrei erantzunez espazio aberatsak eta askotarikoak eskaintzen ditugu, haur bakoitzak bere ibilbide propioa egin dezan. Horretarako, sormena bultzatzen duten materialak erabiltzen ditugu. Honez gain, kanpo espazioarekin lotura zuzena dugu.
- Euskara garatzeko edo garatzen hasteko testuinguru eta esku-hartzeak.
- Bazkaltzeko eta lotarako momentua (irakaslea eta begiralearen artean etengabeko koordinazioa).
- Irakaslearen profila eta irakasleen arteko koordinazioa.
- Familiarekin harremana, elkarlana.

Ebaluazioa

Ebaluazioaren bitartez ikaslearen prozesuaren jarraipena egiten dugu. Ikasleen ebaluazioa banakakoa, jarraitua eta globala da. Ikasleen konpetentziak ebaluatzeko prozesuan, eguneroko behaketaz eta jarraipenaz gain, ebaluazio garaia zehaztuta daude irakasle taldeak eta ikasketaburuak ikaslearen ibilbidearen balorazioa egiteko. Ikaslearen garapeneren berri emateko eta oinarritzko konpetentzien lorpen-maila neurtzeko loratzen edo loratuta adierazleak erabiltzen dira.



Aurtengo ikasturtean ebaluazio markoaren lanketarekin jarraitzen dugu. Helburua denez ebaluazioa ikasketa-prozesuan integratzea eta kompetentzien ebaluazioa bideratzea, Euskal Herriko Ikastolek eskainitako marko teorikoa oinarri hartuz, Haurtzaro Ikastolako HHko ebaluazio markoaren diseinuan eta aplikazioan lanean ari gara.

3.1.1.2. Lehen Hezkuntza: 6-12 urte

hIZAN marko berriaren ildotik aurrera urratsak eginez, LHn hedatzen ari den **hEGIN** egitasmoa garatzeko **Kimu** ikasmaterialarekin jarraitzen dugu derrigorrezko Lehen Hezkuntzako 1. 2. eta 3. mailan.

LH4. 5. eta 6. mailan, aldiz, **EKI** proiektuarekin jarraituko dugu. Proiektu horiek Lehen Hezkuntzaren oinarriak finkatzea dute helburu. Lehen Hezkuntza etapa zabala da (6-12 urte), eta barne dituen zikloek ekarpen propioa eginez eta beste etapekiko loturak koordinatuz, curriculum eskaintza bateratua eta koherentea eskaintzen du.

Lehen Hezkuntza etapa osoak honako ezaugarriak partekatzen ditu:

Haurra bere osotasunean hartzea

- Gaitasunen garapenean oinarritua
- Ikaskuntza esanguratsua eskaintzen duena eta ikasle aktiboaren bila dabi lena
- Haurraren etengabeko motibazioa bultzatzen duena
- Aniztasuna errespetatzen duena
- Balioen eta jarrerren hezkuntzarekin konprometitua

Euskal Herri osorako eginga izatea

- Lurralde guztietako erreferentziak jasotzen dituena
- Jatorriz euskaldun nahiz erdaldun diren haurrak euskaraz eta curriculum bateratuan hezteko proposamena
- Curriculumaren euskal dimentsioari garrantzia ematen diona
- Euskalduntasunetik abiatuta, kultura unibertsalerako bidea egiten duena

Diseinu bateratu eta eraginkorra izatea

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako curriculum deskribapen bateratua
- Hezkuntza asmoak argi eta zuzen azaltzen dituena
- Irakasleen berrikuntzaren eta trebakuntzaren bultzatzailea
- Edukiak lantzeko era askotako euskarriak integratzen dituen proiektua

Zehar-lerro hauek garatzea

- Sexu berdintasunerako hezkuntza eta hezkidetzeta
- Giza eskubide, harreman eta bake hezkuntza
- Osasun hezkuntza
- Kontsumo hezkuntza
- Komunikabide hezkuntza
- Bide hezkuntza

Jarraitzen ditugun irizpide metodologikoak

- Globalizazioa
- Ikuspegi eraikitzailea
- Ikaslearen kudeaketarako taldekatzeari eta elkarrekintzari buruzko deskribapenekin
- Denboraren, espazioaren eta baliabideen ustia ketarako orientabideekin
- Gurasoekiko harremanak bideratzeko proposamenekin

Eta pa honetan ikaslearen garapena eta ongizatea lortzeko bizitzen dugun testuinguruari garrantzia handia ematen diogu. Honela planifikatzen ditugu:

- Barne eta kanpoko espazioaren antolaketa eta erabilera: gelen antolaketak, sarrera-irteerak, jolaslekuaren antolaketa, ikastola eremutik kanpoko espazioak, ekintza osagarriak.
- Haurrak behar duen segurtasun afektiboa bermatzea: sentimenduak jasotzea eta ulertzea, irakaslearen begirada, seguru sentitzea, autoestimua.
- Bazkaltzeko lekua eta momentua: irakasle eta begiralearen artean etengabeko koordinazioaren bidez.
- Irakasleen arteko lanaren koordinazioa.
- Gurasoekin harremana, elkarlana.

Ebaluazioa

Eta pa honetan hiru informe idatzi jasotzen ditu familia bakoitzak, ebaluazio bakoitzeko bat. Lehenengo informe idatzia jaso ondoren bakarkako guraso bilerak egiten ditugu: gurasoekin biltzen gara bakarka, aurreko ebaluazioari buruzko hausnarketa egiteko eta hurrengorako jarraibideak eta konpromisoak hitzartzeko. Beharren baitan ikasturtean zehar bilera gehiago egiten ditugu.



Ebaluazioaren bitartez ikaslearen prozesuaren jarraipena egiten dugu. Ikasleen ebaluazioa banakakoa, jarraitua eta globala da. Ikasleen konpetentziak ebaluatzeko prozesuan, eguneroko behaketaz eta jarraipenaz gain, ebaluazio garaiak zehaztuta daude, irakasle taldeak, aholkulariak eta ikasketaburuak ikaslearen ibilbidearen balorazioa egiteko.

Aurtengo ikasturtean ebaluazio markoaren lanketarekin jarraitzen dugu. Helburua denez ebaluazioa ikasketa-prozesuan integratzea eta konpetentzien ebaluazioa bideratzea, Euskal Herriko Ikastolek eskainitako marko teorikoa oinarri hartuz, Haurtzaro Ikastolako LHko ebaluazio markoaren diseinuan eta aplikazioan lanean ari gara.

3.1.1.3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 12-16 urte

EKI proiektuarekin jarraitzen dugu lanean DBHko lau mailetan.

Proiektuak hezkuntza osoa eta integrala bideratzea du helburu eta, hori lortzeko, hainbat ezaugarri ditu. Laburbilduz, konpetentzien garapena du ardatz nagusi, eta hori egoerei aurre eginez lortzen da.

Denok dakigu konpetentzia eta ekintzaitetasuna oso lotuta daudela; hau da, bizitzako hainbat egoerei eraginkortasunez erantzuteko aurrez eskuraturako ezagutzak egoki hautatzen eta erabiltzen ditugun neurrian bilakatzen gara gero eta konpetenteago.

Bizitzan gertatzen den bezalaxe, ikastolako jardunean ere, ikasleak bereganatutako ezagutzek egoerei aurre egiteko baliatzen dituen neurrian garatzen ditu funtsezko konpetentziak. Konpetentzia horiek Europako Erreferentzia Markoan jasotakoak dira: hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, konpetentzia eleaniztuna, STEM konpetentzia, konpetentzia digitala, konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa, herritartasunerako konpetentzia, ekintzaitetza-konpetentzia eta kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia. Hori guztia behar bezala gauzatzeko hainbat eskakizun bete behar dira, besteak beste, ikaslea ikaskuntza-prozesuaren protagonista nagusia izatea, ikaslearen jarduna aktiboa izatea eta, nola ez, ikaskuntza-irakaskuntzarako hautu metodologiko egokia egitea. Hori guztia lotzen du EKI proiektuak. EKI proiektua bi euskarritan dago garatuta: analogikoan eta digitalean. Euskarri analogikoko hainbat jarduera modu digitalean ere lantzen ditugu, helburua ere badelako ikasleen konpetentzia digitala garatzea.

Baliabide digital horiek, paperezko euskarriak dituen abantailez gain, baliabide propioak jartzen dituzte irakasleen eta ikasleen eskura: bideoa, audioa, zuzenketa automatikoak, fitxak partekatuz taldean lan egitea... Eta horien guztien erabilera, oreka pedagogikoa landuko dugu.

Ebaluazioa

Aurtengo ikasturtean proiektuari dagokion ebaluazio markoaren lanke-tarekin jarraitzen dugu, lege berriaren eskakizunetara egokitzeko. Helburua denez ebaluazioa ikasketa-prozesuan integratzea eta kompetentzien ebaluazioa bideratzea, EHI Euskal Herriko Ikastolek eskainitako marko teorikoa oinarri hartuz, Haurtzaro Ikastolako DBHko ebaluazio markoaren diseinuan eta aplikazioan lanean ari gara.

3.1.1.4. Ikaslearen gaitasunen garapena eta baloreen transmisioa

2-18 urte bitarteko heziketa garaian, ikaslea bere osotasunean ulertzen dugu: garatzen ari den pertsona, hezten ari dena. Ikuspegi globalarekin lan egiten dugu Urmendin, Haurtzaro Ikastolan eta Oiartzon ere. Etopa guztietan lantzen ditugu ondorengo gaitasunak eta baloreak:

A) Aniztasuna

Gure gizartea anitza da, gu ere hala gara, eta aniztasunak gero eta ertz gehiago ditu: familia eredu desberdinak, urritasun fisikoa edo psikikoa duten pertsonak, baliabide ekonomiko desberdinetakoak, hainbat jatorritako etorkinak eta atzerritarrak, ideologia eta sinesmen desberdinak, identitate ezberdineko pertsonak... Aniztasun hori gizartean dago, eta horren isla dira gure ikasgelak ere.

Aniztasunak ikastolako bizitza eta jarduerak kolorez betetzen ditu, denak desberdinak, baina, aldi berean, eskubideetan eta betebeharretan berdinak garela agerian jarritz; hau da, elkartzen gaituena urruntzen gaituena baino gehiago dela ikusaraziz. Hauxe da Haurtzaro Ikastolan eskola komunitate bezala landu nahi duguna, norberak bere ezaugarriak ezagutzea eta errespetatzea, bestearenak ere errespetatzen dituzan.

Erronka handia bada ere, gure bideak hortik joan behar duela sinesten dugu. Horretarako, eguneroko jardueran zehar-lerro bezala lantzen ditugu aniztasuna eta bizikidetzeta. Era berean, ezkutuko curriculumean, hau da, gure eguneroko portaeran, desberdintasunarekiko, norberak bezala pentsatu eta egiten ez dutenekiko errespetuzko jarrera lantzen dugu.



Balio horiek garatzeko maila desberdinetako esku-hartzeak eta baliabideak ditugu, arruntenetik hasi eta ez ohikoetaraino.

Alde batetik, gure curriculum proiektuan oinarritutako ikas materialaren bidez, hezkuntza konpetentziak eta konpetentzia metadisziplinarrak ikasle guztiekin lantzen ditugu.

Gelako eta inguruko aniztasunak aukera ematen digu tutoretzako saioetan hori ere lantzeko, balioen lanketarekin uztartuz. Etapa bakoitzean zer eta nola landu Etapako Tutoretza Ekintza Planean zehaztua dugu.

Horrez gain, gurasoekin egiten ditugun bileretan, elkarlanean, ikasleari dagozkion premiei erantzuten diegu.

Ikaslearen edozein premiari erantzuteko ikasturtean zehar premiarren baitako Jarduera Plan Pertsonalizatuak (JPP) idazten ditugu, gurasoei aurkeztu eta elkarlanerako adostasunak jasoz. Horrez gain, Lehen Hezkuntzako etapan errefortzu saioak eskaintzen ditugu eskola ordutegitik kanpo, baita DBHn ere.

Etorikin berantiarrekin AEK-rekin eta Oiartzungo Udaleko Euskara Sailarekin elkarlanean euskara errefortzu saioak bideratzen ditugu. Bestalde, egokitzapen kurrikularrak idatziz jasotzen ditugu, ikaslearen beharretara ahalik eta gehien egokituz.

Hainbat ikasleren premia zehatzei erantzuteko ez ohiko baliabideak ere bideratzen ditugu. Ikasle hauen kasuan, eskualdeko Berritzeguneko arduradunaren oniritzia derrigorrezkoa da, baita gurasoena ere.

Haurtzaro Ikastolako Orientazio Departamentuko kideak, eskualdeko Berritzegunearekin (ergoterapeuta, CRI, fisioterapeuta, EPI...), Ikastolen Elkarteko Orientazio Mintegiko lantaldearekin, Udal Ongizate Zerbitzuarrekin eta kanpoko profesionalekin elkarlanean jarduten dugu, ikasleen premiei ahalik eta egokien erantzuteko.

Ikasleen premiei erantzuteko honako baliabide pertsonalak ditugu: hezkuntza laguntzaile espezialistak, Orientazio Departamentuko orientatzailea, aholkularia, PT-ak, kanpoko espezialistak...

Orientazio Departamentuko profesionalok, kasuan kasuko partaideekin errekurtso hauen kudeaketan parte hartzeaz gain, ikasleek ikaskuntza prozesuan izan ditzaketen zailtasunei eta beharrei erantzuna emateko beharrezko baliabideen kudeaketak eta esku-hartzeak diseinatzen ditugu, Zuzendaritza Taldearekin elkarlanean. Era berean, gurasoen eta irakasleen eskaeren arabera, hauei erantzun eta kasuan kasuko aholkularitza ere bideratzen dugu.

B) IKTak

Eguneroko bizitzan IKTek duten presentzia eztabaida ezina da gaur egun. Komunikazioan, informazioa eskuratzeko, ordainketak egiteko, medikua-
ren zita eskatzeko... *digital* hitzaren pisua nabarmena da.

IKTak ondo ulertzea eta erabiltzen jakitea estrategikoa dela deritzogu. Horregatik, Haurtzaro Ikastolak teknologia berrietan bete-betean murgiltzeko erabaki estrategikoa hartu zuen eta urratsak etengabe egiten ari gara.

Ikasleen derrigorrezko irakaskuntzan garatu beharreko oinarrizko konpetentzien artean, **IKTen oinarrizko konpetentziak** ziurtatzea lortu nahi dugu.

Horretarako, IKTak Hezkuntza Proiektuan eta Proiektu Kurrikularrean integratuak ditugu. Alde batetik, IKTek ikuspegi didaktikotik eskaintzen dituzten aukerak arakatu eta inplementatu ditugu, eta, bestetik, ikasleak IKT tresnak autonomiaz erabil ditzaten alfabetatzen ditugu.

Hiru zutabetan oinarritu dugu IKTen hedapenerako plangintza: azpiegiturretan, prestakuntzan eta baliabideetan.

Baliabide digitalak behar bezala erabili ahal izateko, ezinbestekoa izan da ikastolan Internetarako konexio egokia bermatzea, komunikazioak, hardwarea, softwarea eta beharrezko tresna guztiak prestatzea eta, gela guztiak beharrezkoak diren **azpiegiturekin** hornitzea: proiektorea, pantaila handia, ordenagailua eta Internetera konexioa.



Giza baliabideei dagokionez, Haurtzaro Ikastolako profesional guztiek etengabeko prestakuntza jarraia eta eraginkorra jaso dugu azken urteetan. Egin ditugun IKT prestakuntza planek aldaketa esanguratsuak eragin dituzte gure ikastolako profesionalen artean, material didaktikoa erabiltzerakoan eta ezagutza digitalak transmititzerakoan, eguneroko lan sisteman, irakaskuntza ikasketa prozesuan...

Ikastolaren egokitzapen digitala merkatuan dauden eta, bereziki, Ikastolen Elkartek sortu eta ekoiztu dituen IKT baliabideetan oinarritu dugu. Ikastola kudeatzeko prozesu administratiboak sistematikoki eta zentralizatuta gauzatzen ditugu eta, esan dugun eran, ahalegin handia egiten ari gara ikas-irakaskuntza prozesuaren garapenean.

Haur Hezkuntza

Maila bakoitzean ordenagailu eta proiektore bana jarri ditugu, eta tresna horien erabilerako lehen urratsak eginez, ipuin, abesti, bideo... eta hainbat eduki multimediekin proiektuaren eduki kurrikularrak lantzen, osatzen eta sakontzen dituzte bertan.

Lehen Hezkuntza

Lehen Hezkuntzan, maila edo gelako ordenagailuak erabiltzen dituzte. KIMU proiektua paperean lantzen dugu nagusiki, baina eduki kurrikularrak lantzeko gero eta aukera gehiago eskaintzen dira webguneen eta zikloetako blogen bidez. LH4. mailatik aurrera, EKI proiektuan, modu integratzean lantzen ditugu jarduera digitalak.

Bestalde, LH4. mailan, gure ikasleak mekanografia lantzen hasten dira, Ikastolen Elkartek sorturiko aplikazio propioan. LH4. mailatik gora ikasle bakoitza bere posta elektronikoaren jabe ere izaten da. Kontu horrek posta bidezko komunikazioa, fitxategiak (dokumentuak, kalkulu orriak, aurkezpenak, mapa mentalak...) sortzeko eta biltegitatzeko aukera, multimediak (audio eta bideo) editatzeko eta biltzeko aukera, eta horiek antolatzeko eta gordetzeko karpeta digitalen aukera ematen du.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

DBHn ikasle bakoitzak bere ordenagailua du. Ikasleei informatikako edukiak ziurtatzeaz gain, helburua da informatika irakasgai guztietarako tresna baliagarri bihurtzea. Hau da, ordenagailua lana erraztuko dion benetako gailu aproposa izatea ikaslearentzat.

DBH osoan EKI-Ikaskune proiektuak irakasgaietan barneratuak ditu IKT jarduerak. Jarduera horien helburua da ikasleak IKT kompetentzietan trebatzea eta ebaluazioaren parte dira. DBHn, EKI-Ikaskune proiektuko arloek oinarri digitala dute eta jarduera guztiak oinarri digitalaren bidez egiten ditugu, *Saioka* plataformaren bidez.

Irakasleak

Ikasleez gain, irakasleok baliabide digitala dugu LIBURU DIGITALA; LH1. mailatik hasi eta DBH4. maila arteko talde guztietan erabiltzen dugu. Horretarako, KIMU eta EKI-Ikaskune proiektuetako liburuetao edukiak multimedia baliabideekin aberastu ditugu. Horrela, Interneten laguntzaz, zabaldu egin dira proiektu horiek eskaintzen dizkiguten aukerak. Irakasleok hainbat baliabide didaktiko ditugu eskura, formatu irekian eta aldagarriak, gelako arbel digitalean edo bideo-proiektagailu bidez proiektatzeko. Bideoek, audioek, animazioek eta gisa horretako materialek azalpenak ematen laguntzen digute eta webetarako loturak, jarduera osagarriak eta egokituak, erantzunak... baliagarriak zaizkigu edukiak lantzeko. Plataforma bakar batean dena eskura dugu irakasleok.

C) Ekintza Osagarriak

Ekintza Osagarriei garrantzia handia ematen diegu ikastolan. Guztiak ditugu curriculumaren zerbitzura antolatuak, curriculumean txertatuak, eta horien bidez hainbat balore eta abilezia lantzen ditugu.

Maila bakoitzeko ekintzak zehaztuak daude ikasturte hasieran Guraso Bileran Orokorretan banatzen ditugun txostenetan.

Gela eta maila bakoitzak egiten dituen Ekintza Osagarriez gain, nabarmendu nahi ditugu 3-16 urte bitarteko ikasle guztiak eta ikastolako irakasle guztiak parte hartzen duten ekintzak: **Jarduera Osagarri Orokorrak**, alegia.

Jarduera Osagarri Orokorretan curriculumean jasoak ditugun euskal kulturaren eta herriko kulturaren transmisioa lantzen ditugu. Urtez urte, hauek dira egiten ditugun jarduerak:



- San Nikolas Eguna
- San Tomas Eguna
- Gabonak
- Santa Ageda / Oles, Oles
- Ihoteak
- Inauteriak
- Ikastola Eguna
- Udaburuko Sua

Horiez gain, herri mailako ekintzetan eta herritik kanpoko zenbait ekintzetan ere parte hartuko dugu, orain arte bezala: Petra Lekuona Zaharren egoitzakoekin Belaunaldien Arteko Programa-n, Zuhaitz Egunean, Prosa eta Poesia Lehiaketan...


Ekintza Osagarri horiek guztiak ongi prestatuak izaten dira, eta helburu zehatzak izaten dituzte. Ikaste-irakaste prozesuan oso garrantzitsuak diren hainbat ezaugarri lantzen ditugu, hala nola: motibazioa, parte-hartze aktiboa, gelan egindakoa kanpora ateratzea, komunikatzeko gaitasuna, etab. Horrekin batera, bizitzarako ezinbestekoak diren hainbat abilezia eta balore ere lantzen ditugu, besteak beste, komunikazioa orokorrean, ingurumenaren zaintza, bizikidetzeta eta laguntasuna.

C) Emaita akademikoak


Lehen Hezkuntza

	HAURTZARO				Ikastolak		EAEko Ikastetxeak				
	Ikasle-kopurua	Igaro dira kalifikazio positiboarekin	Igaro dira gutxiek	Igaro dira guztira	Ikasle-kopurua	Igaro dira kalifikazio positiboarekin	Igaro dira gutxiek	Igaro dira guztira	Igaro dira kalifikazio positiboarekin	Igaro dira gutxiek	Igaro dira guztira
1. maila	62	90,32%	9,68%	100,00%	2501	89,40%	10,60%	100,00%	84,23%	15,11%	99,34%
2. maila	52	88,46%	9,62%	98,08%	2700	88,30%	10,19%	98,48%	79,73%	14,65%	94,38%
3. maila	66	83,33%	16,67%	100,00%	2825	88,25%	11,75%	100,00%	79,68%	19,68%	99,36%
4. maila	58	93,10%	6,90%	100,00%	2873	87,89%	10,72%	98,61%	79,26%	17,11%	96,37%
5. maila	66	92,42%	7,58%	100,00%	2849	88,35%	11,65%	100,00%	78,79%	20,58%	99,37%
6. maila	71	94,37%	5,63%	100,00%	3013	88,98%	10,19%	99,17%	79,89%	17,33%	97,22%

LH: Igaro dira guztira




LH: Igaro dira kalifikazio positiboarekin




DBH

HAURTZARO		Ikastolak				EAEko Ikastetxeak				
	Igaro dira 1, 2 edo 3 kopurua guztietan	Igaro dira 1, 2 edo 3 gubxirekin	Igaro dira 1, 2 edo 3 kopurua guztietan	Igaro dira 1, 2 edo 3 gubxirekin	Igaro dira 1, 2 edo 3 kopurua guztietan	Igaro dira 1, 2 edo 3 gubxirekin	Igaro dira 1, 2 edo 3 kopurua guztietan	Igaro dira 1, 2 edo 3 gubxirekin	Igaro dira 1, 2 edo 3 kopurua guztietan	Igaro dira 1, 2 edo 3 gubxirekin
1. maila 87	79,31%	18,39%	87,94%	10,39%	98,33%	21,21%	72,81%	21,21%	94,02%	94,02%
2. maila 68	82,35%	14,71%	83,65%	12,82%	96,46%	24,37%	66,58%	24,37%	90,95%	90,95%
3. maila 65	83,08%	13,85%	82,01%	14,13%	96,13%	22,09%	70,26%	22,09%	92,35%	92,35%
Ikasle- Titulu Titulu Titulu Titulu Titulu Titulu Titulu Titulu Titulu Titulu kopurua proposamena proposamena proposamena proposamena proposamena proposamena proposamena proposamena proposamena proposamena gai guztietan 1,2 edo 3 gai guztietan 1,2 edo 3 gai guztietan 1,2 edo 3 gai guztietan 1,2 edo 3										
4. maila 71	95,77%	2,82%	84,11%	13,16%	97,26%	20,27%	73,90%	20,27%	94,17%	94,17%

DBH: Igaro dira guztira



DBH: Igaro dira kalifikazio positiboarekin



3.1.1.5. 16-18 urte: Oiartzo Ikastola

23-24 ikasturtearen balorazioa eta 24-25 ikasturtearen erronkak

Batxilergoaren etapa laburra nahiz bizia da. Erritmo altua du, Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa USE azterketak ikasleak eta irakasleak korrikaldi batean joatera behartuz. Hala eta guztiz ere, ikasleek aurreko ikasturtean lortutako emaitza positiboari eutsi diote. Modu honetan, USE azterketara lehen deialdian promozioaren %97a aurkeztu zen (105 ikasle 108tik). Hori gutxi izango balitz, gure gazteek azken urteko emaitza hobetzea lortu dute, batz bestekoa altua lortuz (7,97). Gainerako ikasteetxeekin alderatuta hauek dira Oiartzoko noten batez bestekoak:

	OIARTZO	GAINERAKO IKASTETXEAK
Probako batez bestekoa	8,3	7,04
Espedienteko BB nota	7,76	7,8
BB azken nota	7,97	7,53

Taula honetan ikus daitekeen bezala, Oiartzoko ikasleek selektibitateko proban gainerako ikastetxeetako ikasleen gainetik daude eta, ondorioz, azken notaren batez besteko notan ere bai. Zoriontzeko datua eta zoriontzeko lana gure gazte zein irakasle taldearena. Bestalde, lehen mailari dagokionean, oso gertu geratu ginen iazko matrikulazioan lau lerro izatetik. Horren ondorioz, hiru gela izango ditugu ikasturte honetan zehar (32ko hiru gela).

23-24 ikasturtean matrikulazioan laugarren lerroa lortu ez bagenuen ere, beste hainbat gauza lortu genituen. Batetik, eraikinaren eraberritzea. Teilatua eta igogailuaren obra amaitu genuen, gure eraikinak irisgarritasun aldetik beharrezkoak zituen lanak egin genituen. Bestetik, aurreko ikasturteetan martxan jarritako ekimenekin jarraitu genuen, esaterako: Euskal Olinpiadak, Gabonetako Topaketa, HABE ikastaroa, Aisiolako begirale titulua lortzeko ikastaroa edota Oxfordeko azterketak. Azkenik, hautazko berrien eskaintza egin genuen lehenengo mailan (Laborategi Teknika eta Ahozko Komunikazioa Atzerriko Hizkuntzan) eta guztietan taldea atera da. Hortaz, iazko arrakasta ikusita, aurtun ere horiei helduko diegu.

Bukatzeko, aipatzekoa da 22-23 ikasturteak LOMLOE legearen eskutik aldaketa esanguratsuak eragin zizkigula. LOMCE egituratik LOMLOE egiturarako saltoa diseinatu behar izan genuen: irakasgaien aldaketak, ordu kopuruen aldaketak, tutoretza saio txertatzea, hautazkoen aldaketa handiak 2. batxilergoan eta selektibitateko eredu berria.

Azken honen haritik, eredu berriak ikasturtea martxan genuela publikatu dituzte (urrian). Horrek ezjakintasuna eta urduritasuna eragin zuen bai klaustroan baita ikasleengan ere. Hala ere, irakasle taldea buru-belarri jarri da eta aldaketek eragiten duten erronkak indarrez hartu ditugu.

3.2. Euskara eta eleaniztasuna

Ikastolen sorreraren arrazoi nagusienetakoak euskararen berreskuratzeari eta garapen prozesuari erantzutea izan dira, hartara, ikastolen ibilbidea eta euskararen zabalkundea estu-estu loturik azaldu ohi dira. Baina XXI. mendeko gizartea eleaniztuna da, eta behar horri erantzuteko euskal herritar eleaniztunak hezi behar ditugu, bizitzako egoera bakoitzak eskatzen duen ahozko zein idatzizko hizkuntzaren erabilera egokia eta eraginkorra egingo dutenak.

Agerikoa da inguruneak eta gizarte harremanek gaztelania/frantsesa erabiltzera bultzatzen dutela. Baina urteetako eskarmentuak erakutsi du eraginkorra eta ezinbestekoa dela ikasleek ahoz eta idatziz egoki komunikatzeko, irakas- eta ikaskuntza-prozesuan euskara erabiltzea. Horregatik, XXI. mendean ere, egiten dugun eleaniztasunaren planteamenduan **euskara da ardatza**.

Testuinguru horretan kokatu behar da **HIZKUNTZ PROIEKTUA**, hizkuntzen ikaskuntzari eta erabilerari koherentzia emango dion markoa. Hala, euskara ardatz duen eleaniztasunaren garapena era egokian bidera dadin ziurtatzeko, besteak beste, hauek izango dira langai nagusiak: hizkuntz plangintza eragingarria finkatzea ikastolan, hizkuntza bakoitzaren funtzioak eta espazioa zehaztuz; hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntzan erabilitako ikuspegiak eta metodologiak bateratzea, eta hizkuntzen erabilera instrumentalaren eraginkortasuna curriculum osoan bermatzea.

Horregatik, 2022-2025 Plan Estrategikoaren barruan, ikasturte honetan, Haurtzaro Ikastolak bere Hizkuntz Proiektua bideratzen jarraituko du.

3.2.1. Euskara

Haurtzaro Ikastolan euskararen erabilera eta ezagutza bermaturik dauden arren, hiztun osoak hezte da gure Hizkuntz Proiektuko helburuetako bat eta, ildo horretatik, euskararen kalitatea landu nahi dugu, horretarako, hizkuntza erregistroen erabilera tratatuz. Bide horretan, azken ikasturteetan irakasleak formazioa jasotzen ari gara, eta gelan aplikatzeko urratsak egiten jarraituko dugu.

Ikastolako Hizkuntz Proiektua euskararen erabilera eraginkorra egiteko, garatzeko eta indartzeko konpromisoarekin sortu zen, baita euskal hizkuntza eta kultura bere osotasunean transmititzeko ere. Horrela, euskal kultura ezagutzeko, ulertzeko, sentitzeko eta harekin erlazionatzeko aukera eskaintzen du, gurearekin kontaktuan dauden beste kulturak elementu positibotzat hartuz eta ezagutzen. Horrekin, norberaren kultura aberastuz eta mundura zabalduz, ikasleari bere nortasuna eraikitzeke aukera eman nahi diogu. Ikastolako euskal komunitatea indartu asmoz, ikastolan Euskal Herriko lurralde ezberdinetako ikasleak elkar ezagutzeko bidea sendotu nahi dugu. Helburu horrekin, ikasleen esparruan, bi proiektu bideratuko ditugu:

1. **Elkarrekilan Euskal Herria** egitasmoa: LH3 eta 4an kokatu genuen eta, pixkanaka, etapa osora zabaltzen ari garen Zuberoako bi ikastolekin harreman eta elkartruke proiektua da. 2014-15ean eman genion hasiera proiektu honi eta hurrengo ikasturteetan sendotzen jarraituko dugu.

2. **Elkarrekin Bizi(hi)tza**, EKiko DBH1. mailako unitateak hala proposatuta, DBH1. mailako Hegoaldeko eta Iparraldeko ikasleen arteko elkartrukea bideratuko dugu. Nafarroa Behereko Larzabal herriko Manex Erdozaintzi Etxart Kolegioko ikasleekin aurrez aurre elkarrekin egoteko aukera izango dugu, bai Oiartzunen, baita Larzabal inguruan ere.

Bestalde, Curriculum Bateratuaren garrantziaz hausnartuta, ulermenaren eta adierazpenaren lanketan jarraitzen dugu ikastolan. Ulermenaren eta adierazpenaren bidetik, ulermen estrategien inguruko prozedurak eta ikasketa teknikak finkatu ditugu eta lantzen hasi. Dagoeneko ulermenaren eta adierazpenaren lanketa bideratua dago etapa guztietan eta, besteak beste, ebaluazio adierazleak zehazten jarraituko dugu.

Gainera, Euskaraz Bizi proiektuari dagokionez, ohikoak diren idazmena, ahozkoetasuna eta irakurzaletasuna sustatzeko motibazio ekintzak antolatuko ditugu. Irakurzaletasunari loturik, Liburu Txokoaren ekimenetik abiatuz, Irakurketa Planeko helburuak lantzen jarraituko dugu: irakurtzen ikasi, ikasteko irakurri, irakurzaletasuna, familiarekiko lotura eta inguruarekiko harremana.

3.2.2. Eleanitz Proiektua

Eleanitz Proiektua 1991. urtean abiatu zen, euskal hiztun eleaniztunak hezteko asmoz. Helburu hori bete ahal izateko, euskara hizkuntza nagusi dela, gaztelania, ingelesa eta frantsesa irakasteko eta ikasteko prozesuak marko metodologiko eta curriculum komun baten barruan bildu genituen.

- **Gaztelania:** gizartean duen lehentasuna aintzat hartuz, bigarren hizkuntza gisa hartzen du proiektuak. Bereziki, ikasketa-munduarekin loturiko erabilera formalak indartzeari begira egiten dugu lana. Erabiltzaile independentearen B2 maila lortzea da helburua.
- **Ingelesa:** globalizazioaren gizartean hartu duen lingua franca papera ikusirik, hizkuntza hori lanerako edo ikasketak jarraitzeko testuinguruarekin lotzen dugu. Erabiltzaile independentearen B1 maila lortzea da xedea.
- **Frantsesa:** mugaz bestaldeko komunitatearekin harremanetan jartzeko helburuarekin lantzen dugu nagusiki eta, beraz, ikuspegi kulturalago eta funtzionalago batekin garatzen dugu. Oinarritzko erabiltzailearen A1-A2 maila lortzea da helburua.

Eleanitz-Gaztelania, Eleanitz-English eta Eleanitz-Français zuhaitz emankor horren adarrak dira, eta ezaugarri hauek dituzte:

- Ingelesaren ezartze goiztiarra: 4 urtetik aurrera.
- Gaztelaniaren ezartzea: LH2. mailatik aurrera.
- Frantsesaren ezartzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailatik aurrera.
- Ekintzan oinarritutako metodologia-ikuspegian sortutako ikasmaterialak eta proposamen didaktikoak dituzte: hizkuntzaren ikaskuntza ekintza esanguratsuak gauzatuz eta ekintza horiek besteekin partekatuz lantzen ditugu (adib. ipuin dramatizatuak, ataza eta proiektuak, CLIL/EMILE).
- 4-16 adin tartetarako ikasmaterial progresiboak eta koherenteak.
- Irakasleen prestakuntzan eta garapen profesionalean ardatzua.
- Irakaskuntza metodoen, ikasmaterialen eta irakasleen prestakuntzaren jarraipena eta hobekuntza, barne eta kanpo ebaluazioen bidez.



3.2.2.1. Gaztelania

Gaztelaniaren irakaskuntzak, beste hizkuntzak bezalaxe, ikuspegi diskurtsiboa hartzea eskatzen du: komunikaziotik eta erabileratik abiatuz planifikatzea. Ikuspegi horren arabera, hitz egitea eta idaztea hauxe da: komunikazio testuinguruaren arabera, helburu batzuk lortzera bideratzen diren testuak erakitzea. Horretarako, gaztelaniaren irakaskuntzan alderdi metodologiko hauek hartzen ditugu kontuan:

- Ikasleentzat esanguratsuak diren komunikazio-proiektuek bideratutako ikaskuntza-prozesua izatea.
- Testua komunikazio-unitatea izatea. Testu-genero bakoitzak berariazko ezaugarriak dituela kontuan hartuta, bere ulermenerako eta ekoizpenerako ikaskuntza espezifikoak eskatzen ditu.
- Ikaskuntza sekuentzia didaktikoetan egituratzea, jarduerak komunikazio-lan zehatz bat lortzera bideratutako helburu didaktiko batzuen inguruan antolatuz eta artikulatuz.
- Prozedurak eta goi mailako estrategia kognitiboen garapena nagusitzea. Hizkuntz ezagutza lortzeaz eta ezagutzak aplikatzeaz gain, hitzekin gauzak egiten jakitea da helburu nagusia.
- Ezagutza instrumentala eta formala prozesu bakar batean barneratzea. Gramatika-hausnarketaren abiapuntua da landuko den testua; ezin dira bereizi komunikazio-ekintzaren helburua eta testuingurua, adierazi beharreko edukia eta horren arabera erabili beharreko hitzak eta moduak.
- Ikasleen artean eta irakasleen eta ikasleen artean elkarreragina: ikuspegi diskurtsiboak zuzeneko eragina du metodologia erreferentzia jakin batzuk aukeratzera.

Ikasleen gaztelania arloko irteera-profila definituta dago ikastoletan: DBH4. maila bukatzean, ikasleek **gaztelaniako** erabiltzaile independenteen B2 maila lortzea nahi dugu.

3.2.2.2. Ingelesa

95-96 ikasturtean heldu genion Eleanitz Proiektuari. Hasieratik, Ikastolen Elkartek gidatutako proiektua izan da baliabideetan, materialetan eta metodologian.

Metodologiaz:

- LH3. mailara arte, antzetzutako ipuinak dira metodologiaren oinarri nagusi. Taldean antzetzten dira, ahoz. Ez da inongo itzulpenik edo irudirik erabiltzen, baina keinuen bidez eta ipuinetako pertsonaiak leku zehatz batekin identifikatuz elkar ulertzen dute ikasleek eta irakasleek. Ahoz antzetzutakoa sendotzeko, hainbat jarduera egiten ditugu: muralak, liburuxkak, hiztegia lantzeko jokoak, abestiak, txotxongiloak, marrazkiak... Ikasleek parte hartzea izaten da helburu nagusia.
- Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetan, proiektuak egiten ditugu EKI metodologia jarraituz.
- DBH1. eta 2. mailetan curriculumeko irakasgaietako atal desberdinak (Musika, Natur Zientziak...) lantzen ditugu.
- DBH3. eta 4. mailetan ohiko ingeleseko saioez gain, Geografia eta Historia irakasgaia ingelesez lantzen dugu. Horrela, bi arlo dituzte hizkuntza honekin lotuta.

Hori guztia osatzeko, 2014-2015 ikasturtean **Haurtzaro English** bloga sortu genuen. Bertara, gelan egiten dugun lanaren gaineko hainbat bideo eta argazki igotzen ditugu. Ez hori bakarrik, bloga zikloka banatuta dago eta maila bakoitzean egiten dugunaren osagarri gisa hainbat ariketa, bideo eta joko daude, etxean ingelesa modu dibertigarrian lantzen jarraitzeko.

Gogoratu behar dugu lan honi etengabeko jarraipena egiten diogula, irakasleen formazioan eta ikasleen ebaluazioan; eta jarraipeneko ondorioetatik abiatuz, etengabeko doiketak egiten ditugu ikaste-irakaste prozesuan.

3.2.2.3. Frantsesa

Eleanitz Proiektuaren barruan, aipatzekoa da frantsesaren trataera. Pasa den urtetik hona eta, beti ere proiektuaren baitan, frantsesa ez da hautazkoa 1go zikloan eta bai, aldiz, 2. zikloan.

Irakasgaiaren helburu nagusia ikasleak gaitasun komunikatiboetan trebatzea izaten jarraitzen du, eta horretarako, lehenengo saiotik frantsesa da erabiltzen dugun hizkuntza.

Ikasleei ez zaie hain arrotza egiten, beste hiru hizkuntzetan estrategia linguistikoa landuta baitituzte. Ikasleek 12 urte bitarte euskara, ingelesa eta gaztelania landu dituzte, beraz, laugarren hizkuntzarekin hastekoan, beren aurre-ezagutzek laguntzen diete.



Aurtengo berrikuntza, DBH osoa EKI materialarekin osatuta dagoela da, pasa den urtean DBHko 4. maila baitzen falta zena. Bertan, ikuspegi komunikatibotik abiatuta, hizkuntza komunikazio-tresna bihurtzea da helburu nagusia, eta horretarako ekintza eta proiektu txikiak egiten dira.

Aurten, bestalde, Breizh-ko Gwiseni herriko Diwanarekin elkartrukea egingo dugu. DBH3. eta 4. mailako ikasleek talde bakarra osatuko dute. Ikuspegi komunikatiboa nahiz harremanak lantzeko urte garrantzitsua izango da.

Hala, ikasgelan ikasitako hizkuntza egoera errealetan baliatzeko aukeraz gozatuko dute, arrotza edo ezezaguna zaienari aurre eginez eta komunikazio egoeretan sor daitezkeen oztopoak gaindituz. Horrek guztiak aurrerapauso handiak dakartza euren garapen prozesuan. Beste giza eredu batzuk ezagutzea eta horiek balioztatzen ikastea ikuspegi irekiago eta toleranteago bat eraikitzeko giltza dira eta proiektu horrek horixe ahalbidetzen du. Halaber, elkartruke horrek hizkuntza gutxituekiko kontzientzia eta elkartasuna indartzen ditu; izan ere, euskararen antzeko egoera pairatzen du bretoierak.

Elkartasun horrek, hizkuntza batek bizirik irauteko beharrezkoak dituen urratsak eta baliabideak zein diren hausnarketa egitera bultzatzen ditu ikasleak. Oso esperientzia aberats eta positibotzat dute ikasleek, familiek nahiz irakasleek.

3.3. Eskolako Agenda 2030

Gure planetaren egoera ekologikoaz jakitun garen arren, berau hobetzeko ekintzak burutzerakoan sortzen zaizkigun kontraesanez kontziente egin eta ekintza eredugarriak sendotzen jarraitu nahi dugu.

Urtetan heldutako erronkari eutsiz Agenda 2030eko programan Garapen Iraunkorraren Helburuen (GIH) lanketarekin jarraituko dugu. Aurten eta hurrengo ikasturtean **Ura** izango da gaia eta hurrengo helburuak landuko ditugu:

- 6. GIH:** ur garbia eta saneamendua
- 12. GIH:** ekoizpen eta kontsumo arduratsuak
- 14. GIH:** itsaspeko bizitza

- **ZER EGINGO DUGU?** Udalerri eta ikastola mailan uraren erabilera eta kontsumoa eta ur ekosistemen inguruko diagnostikoa egingo dugu.
- **NOLA EGINGO DUGU?** Adin guztietako ikasleek Oiartzungo egoera aztertzeko jarduerak eskainiko ditugu, udalerriko hausnarketa gako sendoak identifikatuz baita hobetu daitezkeen alderdiak ere.
- **ZERTARAKO EGINGO DUGU?** Hezkuntza komunitateak udalerrira hobetzeko prozesuan parte hartuko du, proposamenak eta konpromisoak udal ordezkarietaz azalduz. Garapen Iraunkorraren alde, elkarlanean!

Eskolako Agenda 2030 egitasmoak lanketa hori egiteko markatzen dituen faseak jorratzen ditugu ikastolan: motibazioa-sentsibilizazioa, diagnostikoa, ekintza plana, komunikazioa eta ebaluazioa. Modu horretan, ingurumen gaien berritze eta eguneratze lanak egiten ditugu gure curriculumean. Diagnostikoetan lortutako emaitzekin gure lanean hobekuntzak txertatzea da helburua, ekintza planak sendotzeko.

Era berean, gure kudeaketan eta partaidetzan eragile aktiboak izan nahi dugu gertuko ingurunea hobetzeko; natura zein giza harremanen ingurunea hobetzeko, alegia. Inguru gozagoan, atseginoan eta iraunkoragoan bizi nahi dugulako.

Partaidetza bultzatzeak berebiziko garrantzia du Eskolako Agenda 2030en hezkuntza programan. Hori dela eta, ikastolaren barruan nahiz herrian, Hezkuntza Komunitatea osatzen dugun eragileen parte-hartzea sustatu nahi dugu:

- Ikastolan: ikasle **ekoordetzakarien taldea** eta ikasleen **Talde Berdea** ditugu.
- Herrian: ikastetxeen arteko foroak, Udalaren eta ikastetxeen arteko foro edo topaketak, etab.

Gurasoen parte-hartzea oso garrantzitsua da, Hezkuntza Komunitateko eragile baitira gurasoak ere, eta ikastola komunitatea osatzen dugun guztien ekarpenak behar ditugu eremu honetan aurrera egiteko.

Bide batez, proiektu hau garatzen eskaintzen digun laguntza dela eta, Oiartzungo Udalari bere bultzada eta babesa eskertu nahi dizkiogu. Azkenik, **Eskola Jasangarriaren Aintzatespen Agiria** indarrean dugula gogorazi nahi dugu.

3.4. Eskolaz Kanpoko Ekintzak

Eskolaz Kanpoko Ekintzen eskaintza zabala eta anitza dugu ikastolan. Eredu ez formalean garatzen diren jarduerak dira eta bereziki garrantzitsuak, ikaslea motibatuta, gustura eta hunkituta dagoenean, hobeto barneratzen baititu jardueran ikasitakoak.

Garaiak eta ikasleen premiak aldatzen eta garatzen doazen arabera, aisialdiko eskaintzak ere aldaketak izaten ditu; lehen kultura eta kirol arloak bereizten genituen, baina gaur egun, teknologia ere bada jarduera hauen parte.

Kultur, kirol eta teknologia arloko 14 ekintza proposatzen ditugu Haurtzaro Ikastolan, haur bakoitzak bere gogoen eta gustuen arabera aukeratzeko, baina guztietan lantzen ditugu bizitzarako ezinbestekoak diren hainbat abilezia eta balore, besteak beste: jendaurrean komunikatzea, konpromisoa, sormena, teknologia berrien erabilerarako trebetasunak, psikomotrizitatea, antolaketa, trebetasun sozialak, inizatiba hartzea, oreka, elkartasuna, pazientzia, enpatia, entzuten jakitea, talde-lana, herritartasuna...

Horiez gain, haurraren garapen osoan zehar eta autoestimu positiboan eragiten duten saioak ere badira.

3.4.1. Hezitzaile talde tituluduna eta egonkorra

Eskolaz Kanpoko Ekintzak gidatzen 40 hezitzaile gazte dabilta. Hezitzaile taldea talde gaztea, iraunkorra eta tituluduna da. Egonkortasun horrek asko laguntzen du koordinazioan, baina garrantzitsuena ez da hori; garrantzitsuena da guztiek ilusio handiarekin egiten dutela lan, haurrak maite dituztela eta haurrentzat hurbileko erreferentzia direla. Ikasleak ere oso gustura dabilta, eta horren adibide da ikasturtero partaide kopurua handituz doala.

3.4.2. 2024-2025 ikasturteko eskaintza

Pixkanaka eskaintza zabaltzen ari gara eta ikasleei aukera berriak eta ekintza berriak eskaintzen. Zailtasunik handiena instalazioena da, gelen premia nabaria da.

Ikasturte honetan martxan jarritakoak, oraingoz, hauek dira:

Kultura arloko ekintzak

1. Sorgin eta Aztien Heltzea
2. Eskulanak
3. Dantza Modernoa
4. Bertsolaritza
5. Euskal Dantzak
6. Musikart
7. Antzerkia
8. Gitarra
9. Trikitia eta panderoa

Teknologia arloko ekintzak

10. Mekanografia
11. Robotika

Kirol arloko ekintzak

12. Xakea
13. Eskola Kirola
14. Atletismoa

24-25 ikasturte honetan ekintza horietan guztietan parte hartzen ari diren ikasle kopurua 460koa da, gutxi gorabehera.

3.4.3. Hainbat emanaldi ikasturtean zehar

Astetik astera gelan edo saioetan ikasitakoa baloratzeko, egindako bi-deaz jabetzeko eta aurrera jarraitzeko gogoia eta ilusioa mantentzeko, oso garrantzitsua da entseguetan egiten dena jendaurrean erakustea. Haurrarentzat oso bizipen garrantzitsuak dira, maiz oroitzapenetan geratzen diren horietakoak. Une horietan talde lanaren balioa indartu egiten da, urduritasunak kontrolatzen ikasten da eta ongi egindako lanaren satisfazioa handitzen da.

Ikasturte osoan zehar sortzen zaizkigun aukera guztiak baliatzen ditugu jendaurreko saioak egiteko, hala nola: herrian antolatzen diren jaiak, ikastolak berak antolatzen dituenak, puntualki jasotzen ditugun gonbidapenak, Haurtzaro Dantza Taldeak ikasturte osoan zehar egiten dituen emanaldiak, herrian eta herritik kanpo (Dantzari Txiki Egunak, herriko jaiak, auzoetako jaiak esate baterako), eta asteroko Eskola Kiroleko jardunaldiak eta atletismoko frogak.

Ikasturteko unerik gogoangarrietakoak ekainean izaten dira. Ikasturte amaieran, gaur egun Landetxe auditoriumean egiten diren antzerki eta musika emanaldiak izaten dira, baita bi urtean behingo Haurtzaro Dantza Taldearen emanaldia ere, eta Ikastola Egunean Eskolaz Kanpoko Ekintza askoren erakustaldiak egiten ditugu.

3.5. Zerbitzuak

Eskolaz Kanpoko ekintzez gain, ikastolak eskaintzen dituen zerbitzuak bi dira: Jantoki Zerbitzua eta Garraio Zerbitzua.

Jantoki Zerbitzua

2024-25 ikasturtean, 535 ikasle-erabiltzaile finko ditugu. Aurten, jantokirako arautegi berria jarri dugu martxan.

Lanean ari diren hezitzaileak 22 dira; eta horietako gehienek urte asko daramatzate ikastolan lanean.

Menuak ikastolako jantokian prestatzen ditugu, garaian garaiko elikagaiekin. Eskaintzen ditugun menuak Inal Consultores Oiartzungo kanpo aholkularitza enpresaren laguntzarekin berrikusi eta berritu ohi ditugu. Ikasleen eta familien asebetetze maila altua da.

Garraio Zerbitzua

2024-25 ikasturtean, garraio erabiltzaileak 20 ikasle dira, eta hezitzaile bat dugu.

Garraio Zerbitzua auzo guztietara iristen da; horretarako, autobusaz gain, Xorrola zerbitzua ere erabiltzen dugu DBHko ikasleekin, eta ikasle-erabiltzaile gutxi ditugun auzoen kasuan, taxi zerbitzuarekin osatzen dugu eskaintza.

Dena den, Eskola Agenda 2030en ikuspegitik, ikasleak eta familiak oinez edo bizikletaz etortzera animatzen jarraitu nahi genuke, jasangarria den eredurantz jotzeko.

3.6. Bizikidetza Taldea

Bizikidetza onuragarri-osasuntsua denon artean bide hoberenetik eraikitzen

Urteetan zehar partaideen arteko elkarbizitzari bide egokiak bilatzea eta ematen joatea izan da denon artean osatzen dugun **Haurtzaro Ikastola hezkuntza komunitatearen** helburu garrantzitsua. Eginkizun funtsezko horren inguruan talde eta dinamika desberdinak osatu, martxan jarri eta indartu izan ditu. Hala nola, **Golden 5, KiVa, Haziak, Hezkidetza, Agenda 2030...** egitasmo desberdinak.


Talde bakoitzaren funtzionamendu autonomia kontuan hartuz eta guztien arteko koordinazioa eta koherentzia egituratze eta sendotze aldera, **egitasmo guztiak Tutoretza Ekintza Plana (TEP) proiektu globalean ere jaso ditugu**. Pixkana egitasmo desberdin guztiak **Haurtzaroren Bizikidetza Taldea** deitu duguna hezurramitzen joan dira.

Haurtzaroren Bizikidetza Taldearen **eginkizun nagusia** egitasmo desberdinei eta eguneroko **lan hezitzaileari norabide ahalik eta argiena, egokiena eta osasuntsuena ematea bihurtu da**. Elkarbizitza horretarako da **Portaera Egokia eta Osasuntsuaren Sustapena (PEOS)** gogoeta gai, oinarri eta eguneroko bizikidetzaren helburuen eta praktikaren gida: **egitasmo guztiak eta TEPk partekatzen dituzten kontzeptzio, printzipio eta egikerak batera elkarlanean pentsatzea, diseinatzea eta koordinatzea da helburua**.

Gurasoak heziketa komunitatearen eragile garrantzitsu dira eta Portaera Egokia eta osasuntsuaren “sustatzaile lana” gero eta trebezia handiagoz osatze aldera, Haurtzaro Bizikidetza Taldeak **24-25 ikasturteko guraso formazioa** diseinatu eta bultzatu ditu **hiru lan ildo** hauen inguruan:

- ***Arauk eta mugak II: kasu praktikoak***
- ***Ohitura osasuntsuak sortuz: elikadura portaera- nahasmenduak ekiditeko familientzako gida***
- ***Mutil berdinzaleak hezteko erronka***

Haurtzaroko Bizikidetza Taldea (HBT) Bizikidetzako proiektuen arduradunek, Orientazio Departamenduak eta HH-LH-DBHko etapetako arduradunek osatzen dute. Talde honek **Hezkuntza Batzordearekin eta Bizikidetza Behatokiarekin batera elkarlanean** jarduten du, denon egingizun den **bizikidetza denontzat onuragarri** gerta dakigun.



Bizikidetza komunitateko partaide bakoitzaren eta guztien benetako onura egituratzea da egitasmo guztiak lotzen dituen hari nagusia. Hala nola, **Golden 5** egitasmoak irakasleen, gurasoen eta beste hezitzaileen begirada aldatetaz eta eguneroko lanketaz hausnartzera bideratzen ditu. Lanketa honek **ikaslearen oinarrizko behar psikologikoak asetzea du helburu: ikasle bakoitzaren autonomian eta garapenean eragiteko ikaslearen alderdi onak ikusi eta nabarmenduko ditu eguneroko lanean.**

KiVa proiektuaren ekarpen nagusia, jazarpena guztion ardurako gertaera dela ohartaraztea da, alegia, ezin dugula jazarlearen eta jazar্তুaren artekoa aparteko gertaera gisa hartu. KiVak jazarpena “ikusit” duenak nola jokatu behar duen eta zer egin dezakeen jakin ahal izateko bitartekoak eskaintzen ditu. Ikastolako komunitate osoak parte hartzen du **eskola jazarpenari aurre egiten**: irakasleek, ikasleek, gurasoek, jantokiko langileek... eta jazarpen egoeretan kudeatze-bideratze lanean **Haurtzaroko KiVa Taldeak (LH-DBH)** jarduten du. **Programa hau LH1. mailatik DBH3 bitarteko ikasleek lantzen dute.**

Haziak Egitasmoak elkarbizitzan sortzen diren **harreman desorekatuak eta botere harremanak** iraultzea du helburu. LH1. mailatik 6. maila bitarteko ikasleek lantzen dute hainbat eragileekin elkarlanean, metodologia eta material zehatzekin.

Hezkidetzaren Planari buruz, esan ikasturte honetan gure komunitatean feminismoa **norabidetzen** jarraitzea dugula helburu. Aurtengo erronketako bat mutil berdinzaleak hezten trebatea izango da, eta Hezkidetzaren Plana eguneratzea. Horrez gain, iazko lan ildoak jarraipena ematea: liburutegietako edukiak birplantzea, Tutoretza Ekintza Planaren berrikuspena, Heziketa afektibo-sexualaren inplementazioa, Agenda Morearen gauzatzea eta sakontzea...

Agenda 2030 egitasmoak **Garapen Iraunkorreko 17 Helburuak (GIH)** (osagai ekonomiko, sozial eta ingurumenarekin erlazionaturakoak) aztertu ondoren **gure curriculumean eta TEPean** integratu ditugu, Portaera Egoki eta Osasuntsuaren sustapenaren ildotik.